



ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO *BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM* – *bimep* AZPIEGITURARI LOTUTAKO AZPIESTAZIO ELEKTRIKOAREN EGITASMOA, ERAIKUNTZA, EZARPENA ETA ABIAN JARTZEA

Espediente zenbakia: EER/10/009-A

Energiaren Euskal Erakundearen jardueraren oinarritzko ardatzetako bat izaki, energia-baliabide berriztagarrien aprobetxamendua sustatzeak garrantzi berezia du, bai munduko energia-egoeraren markoan baita ingurumena zaintzeari dagokionez ere. Kontuan izanik Euskadiren egoera geografiko berezia, Energiaren Euskal Erakundeak erabaki du, ildo horretan, itsaso zabalean energia lortzeko proiektu bati ekitea. Horretarako, kontuan izan ditu Kantauri itsasoaren baldintza bereziak itsas energian oinarritutako azpiegiturak ikertzeko, egiaztatzeko eta ustiatzeko. “*Biscay Marine Energy Platform*” – *bimep* proiektuak behar du, elektrizitatea sarera bideratu aurretik, olatuek sortutako energia elektrikoaren tentsioak 13’2 kV-etik 132 kV-era igoaraziko duen azpiestazio elektrikoaren hornitu eta jarri. Era berean, aipatutako azpiestazioan egokitu beharko da gune bat telekomunikazio sistemaren bat jartzeko, Armintzan eraikiko den Ikerketa eta Kontrol Zentrora bideratzeko, zuntz optikaren bidez bidaliko diren datuak igortzeko, hain zuzen ere.

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA GAI OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da *Biscay Marine Energy Platform (bimep)* azpiegiturari lotutako azpiestazio elektrikoaren egitasmo, eraikuntza, ezarpen eta abian jartzea, giltza eskua eran; betiere, bat etorritz baldintza teknikoetarako buruzko agiriarekin eta kontratua gauzatzeko bete behar diren gainerako agiri teknikoekin.

2. KONTRATUKO OINARRIZKO ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Kontratu honen xedea da *Biscay Marine Energy Platform (bimep)* azpiegiturari lotutako azpiestazio elektrikoaren egitasmoa, eraikuntza, ezarpena eta abian jartzea, itsaso zabalean olatuen energia hartzeko sistemak ikertzeko, egiaztatzeko eta ustiatzeko balio izango duen azpiegitura sortzeko asmoz. Esan gabe doa, aipatu sistemen helburu estrategiko nagusia dela energia horren inguruan sektore teknologikoa, industrial eta soziala sortzea.

Aipatutako azpiestazioa Armintza-Lemoiz (Bizkaia) inguruan kokatuko da.

Hauek dira kontratuaren oinarritzko zerbitzuak:

- a) Azpiestazioaren egitasmoa eta eraikuntza egitea, materialez eta esku lanez horniketarekin, baldintza teknikoetarako buruzko agirian zehazten den moduan eta giltza eskua eran.
- b) *Biscay Marine Energy Platform (bimep)* azpiegituraren linea elektrikoak kontratatzeko esleipendunarekin batera, koordinazio lanak egitea azpiestazioa ezartzeko, behar den guztietan.
- c) Instalazioa martxan jartzea, baldintza tekniko berezien agirian aurreikusi baldintzetan.

Lizitatuzaileek proposamen teknikoak egokitu beharko dituzte baldintza teknikoen agirian definitu ezaugarrietara (VIII. eranskina). Horrez gain, kontratuaren xede diren ondasunen eta ekipamenduen horniketari dagokionez, proposatu beharko dituzte merkatuan diren osagai estandarrak.



3. KONTRATUZKO AGIRIAK

Hauek dira kontratuzko izaera duten agiriak:

- a) Administrazio-klausula berezien agiria.
- b) Baldintza tekniko berezien agiria.
- c) Enpresa esleipendunak aurkeztutako eskaintza.
- d) Kontratua formalizatzeko agiria.

4. KONTRATAZIO ORGANOA

Energiaren Euskal Erakundea (“EEE”) da erakunde kontratatzailea.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen (“**SPKL**”) 3.3 artikuluan araututakoaren arabera, EEE ahalorde adjudikatzaila da, eta Lege horren ondorioetarako ez da administrazio publikoa.

5. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

5.1. Kontratua obra-kontratu pribatua da, araubide harmonizatuaren eraginpean ez dagoena, SPKLen 3.1.d), 3.3.b). 13. 1 eta 175 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

5.2. beraz, hauek dira kontratua zuzentzen duten agiriak:

- a) Prestatze eta esleitzeari dagokionez, EEEK onartutako Kontratatze Barne Jarraibideetan adierazitakoa (aurrerantzean “KABI”) beteko da, SPKLen 175 artikuluan xedatzen diren baldintzak betetzeko eta agiri honetan zehazten dena. Era osagarrian, zuzenbide pribatuaren alorreko arauak aplikatu daitezke, hala badagokio.
- b) Kontratuaren betetze, ondorio eta deuseztatzeari dagokionez, administrazio klausula berezien agiri honetan adierazten dena beteko da; baita hirugarren atalean azaltzen diren dokumentuak ere. Kontratuzko izaera duten agiri edo dokumentu horiek guztiak. Kontratuaren betetze, ondorio eta deuseztatzeari dagokion araubidea zuzenbide pribatuarena izango da.

Ez badira bat etortzen administrazio-klausula berezien agiria eta baldintza tekniko berezien agiria, bietan lehenak izango du lehentasuna ezarritako guztian.

5.3. Kontratuko zehazki baldintza edo arestian aipatu agiriak ez ezagutzeak ez du enpresaburua salbuetsiko horiek bete behar izatetik.

6. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete Foru Aldundietan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza saileko Lana eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaietan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzeke orduan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua saileko Ingurumen sailburuordetzan egongo dira –IHOBE sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzeke aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.



Horrela, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan indarrean diren eta kontratua exekutatzeko orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa, bai eta kontratuko agirietan aurreikusi diren klausula gehigarriei buruzko informazioa ere.

7. GEHIENAKO AURREKONTUA

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua bi milioi eta bostehun mila euro ((2.500.000'00 €), gehi BEZari dagokion lauren eta berrogeita hamar mila euro (450.000'00 €) da.

8. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa izango da lizitatzailerik esleipendunak egindako proposamenetik eratorri dena eta ageri dena bi aldeek izendatuko duten kontratu-agirian.

Lizitatzailerik eskaintza ekonomikoa banakaturik aurkeztu beharko dute, agiri honetako 17.2. atalean edo klausulan eta baldintza tekniko berezien agiriko 9. klausulan aurreikusi kontzeptuetan.

Kontratuaren prezioaren barne izango dira ezein motatako zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak, bai eta prestaziotik erator daitekeen edo agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunari sortzen zaion zeinahi gastu ere.

Nolanahi ere, prezio horretatik at geratuko dira, besteak beste, egitasmoa gauzatzeko beharrezkoak diren lizentziak, baimenak, administrazio kontzesioak edo emakidak eta abar lortzeko ordaindu behar diren zergak eta tasak.

9. EMAKIDA ADMINISTRATIBOAK, BAIMENAK ETA LIZENTZIAK.

EEE izango da proiektua exekutatzeko beharrezkoak diren Estatuko Administrazioari, Eusko Jaurlaritzako edo tokiko administrazio eskumendunetako emakidak, baimenak edota udal-lizentziak izapidetzeko eta lortzeko arduraduna, baita ingurumen eraginari buruzko adierazpena izapidetzeko ere. EEEK oso-osorik ordainduko ditu emakida, baimen edo udal-lizentzia horiek izapidetzearen kostuak.

Lizitatzailerik (eta, kontratua exekutatzean, enpresa kontratistek) derrigor bete beharko dituzte proiektua garatzeko beharrezkoak diren baimen, emakida edota lizentzietan ezarritako baldintzak, baita administrazio-eskumendunak onetsitako ingurumen eraginari buruzko deklarazioan ezarritakoak ere. Kontratistak ez baditu betebeharrak horiek betetzen, kontratua suntsituko da.

Kontratuaren esleipendunak lortu beharko ditu dagokion inportazio-baimenak nahiz proiektua garatzeko beharrezkoak diren baimen guztiak –EEEk lortu beharreko atal honetan aurreikusitakoez bestelakoak–. Kontratistak, halaber, bere kontura egin beharko ditu kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren ur-hartuneekin, energia-hartuneekin eta, hala badagokio, obra-hondakinak kentzearekin lotura duten obrak eta lanak. Bi kasu horietan, kontratistak bere gain hartu beharko ditu sektoreko lege aplikagarrietan ezarritako izapidetze-kostuak.

Edonola ere, kontratistak onartuko du EEEekin elkarlanean aritzeko beharra, klausula honetan ezarritakoaren arabera EEEK proiektua gauzatzeko lortu behar dituen baimen eta lizentzia guztiak prestatzeko, idazteko eta izapidetzeko orduan.

10. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratua exekutatuko da enpresa kontratistaren kontura. Nolanahi ere, kontratuaren prezioa ez da berraztertuko.



11. KONTRATUA BETETZEKO EPEA ETA KONTRATUAREN IRAUPENA

Hasiera batean, aurreikusi da kontratua exekutatzeko gehieneko epea hamalau (14) hilabetekoa izango dela, edo esleipendunaren eskaintzan ondoen egokitzen den beste epe batekoa, eta kontratua sinatzen den egunaren biharamunean hasiko da kontaktzen. Aipatu epea, nolana ere, alda daiteke, betiere, agiri honetan aurreikusi kasuetan.

Zatiko epeak, halaber, kontratu-izaera izango dute. Zatiko epeak izango dira esleipendunak aurkeztu behar duen lan-programan ageri direnak.

Lizitzaileek lan-programa jaso beharko dute eskaintzan, betiere, agiri honetako 16.1 klausulan eta baldintza tekniko berezien agiriko 11.3.1 klausulan aurreikusitakoaren arabera.

Edonola ere, epeak luza daitezke, baldin eta enpresa kontratistak bete ezin izan baditu hari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik (*SPKLen 197.2 artikulua*).

Proposamena aurkezten duten lizitzaileek onartzen dute kontratuaren gauzatzea atzera daitekeela (beharrezko lizentziak eta baimenak lortzeko orduan atzerapenak gertatu izanagatik). Hori dela eta, ez da prezioa igoaraziko eta kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik ez da izango.

12. ESLEITZEKO IZAPIDEAK, PROZEDURA ETA MODUA

12.1. Kontratazio-espedita ohiko izapidezkoa da.

12.2. Kontratu hau prozedura irekiaz esleituko da, EEEK onartutako Kontratatzeko Barne Jarraibideetan 3. mailakoa, eta esleitzeko moduari dagokionez, kontuan hartuko da –agiri honetako 18. klausulan araututakoaren arabera– eskaintzak balioesteko irizpide-aniztasuna.

II.- KONTRATAZIO PROZEDURAN PARTE HARTZEA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

13. PARTE HARTZEKO ARAU OROKORRAK

13.1 Baldintza orokorrak:

13.1.1. Enpresa berak ezin izango du proposamen edo parte hartzeko eskabide bat baino gehiago aurkeztu. Eta banaka parte hartzen duenak ezin izango du parte hartu beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartu bada.

Arau horiek ez badira betetzen, ez dira onartuko aipatu arauak urratuz izenpetu diren parte-hartze eskaintza edo eskabideak.

13.1.2. Kontratazio-prozeduran parte har dezakete pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzeritarrek, jarduteko gaitasun osoa dutenek, kontratatze debekurik ez dutenek eta, agiri honetan finkatu irizpideekin bat etorritik, ekonomia- eta finantza-kaudimena nahiz gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatzen dutenek.

13.1.3. Aipatutakoez gainera, lizitzaileek agiri bat aurkeztu beharko dute, SPKLen 53.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, zeinaren bidez konpromisoa hartuko duten kontratua gauzatzeko nahikoa baliabide material nahiz pertsonal erabiltzeko. Konpromisoa hartzeko agiri horretan jaso beharko da kontratua gauzatzeko erabiliko diren makinak, ekipamenduen edo instalazioen azalpen zehatza. Jasoko da, baita ere, lantaldea osatzen duten pertsona guztien zerrenda osoa, zeinean, gutxienez, ondoko hauek adieraziko diren: langilearen lanbide-profila, titulazioa edo kategoria profesionala eta kontratu honen xede denaren moduko azpiegiturak diseinatzean edo instalatzean duen eskarmentua. Konpromisoa aipatuak balioetsi ondoren, erakunde kontratatzaileak kanpo utz ditzake



kontratua egoki gauzatuko dela bermatzeko nahikoa ez den konpromisoa agertu duten lizitatuak.

- 13.1.4. Horrela, lizitatuak izan beharko dute, gauzatzeko den jarduera edo prestazioa gauzatzeko aldera, kasuan kasu eska daitezkeen enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala.
- 13.1.5. Pertsona juridikoek soilik egin ditzakete eskaintzak beren estatutu edo sortze-arauen arabera berezko dituzten xedeak, helburuen edo jarduera-eremuen barruan diren prestazioak dituzten kontratuetarako.

13.2. Bateriazintasunak.

Kontratuko zehaztasun teknikoak edo prestatze-agiriak idazten parte hartu duten enpresek ezin izango dute lizitazioan parte hartu, betiere, parte-hartze horrek lehia librean oinarritzen bada edo gainerako enprekin alderatuta pribilegioak sortzen badira enpresa batzuen alde (*SPKLen 45.1 artikulua*).

13.3. Ondorioak.

Parte hartzeko eskaintza edo eskabide hau aurkeztuz enpresak aditzera ematen du baldintzarik gabe onartu dituela agiri honetako klausulak, baldintza teknikoak agiriak edo gainerako kontratuetarako, salbuespenik gabe; baita datu aurkeztu guztien zehaztasunari buruzko erantzukizun-adierazpena eta prestazioa kontratatzeko baldintza eskatu guztiak betetzen dituela ere.

13.4. Bermeak.

13.4.1. Behin-behineko bermea. Lehiaketa honetan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da behin-behineko bermea aurkeztea enpresa lizitatuak aldetik, agiri honetako 15.2.12 klausulan zehazten den bezala.

13.4.2. Behin betiko bermea. Eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztuko duen lizitatuak behin betiko bermeak jarri beharko du erakunde kontratatzailearen aurrean, kontratua esleitzeko prezioaren %5 izango dena, VII. eranskinean ageri den ereduaren arabera gauzatu da.

Eskaintza ekonomiko egokiena aurkezten duen lizitatuak erruz betetzen ez bada behin betiko bermea, erakunde kontratatzaileak ez du esleituko lehiaketa edo kontratua haren alde, eta agiri honetako 25.7 klausulan ezarritakoa beteko da. Behin betiko bermeak honako egoera hauei egingo die aurre: a) esleipendunak kontratuan dituen betebeharrak berandu betetzea edo behar bezala ez betetzea; b) esleipendunak kontratua ez betetzea, eta hala badagokio, ezarriko diren zigorrak; c) kontratuan hala zehazten denean, aurreikusitako berme aldi horituko diren ondasun edo materialen akatsak.

14. AGIRI ESKATUAK AURKEZTEKO EPEARI ETA MODUARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

14.1. Agiriak aurkezteko epea.

Prozeduran interesa duten enpresek asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, aurkeztu beharko dituzte proposamenak eta 2011ko martxoaren 4ko 12:00ak baino lehen. Horixe izango da parte hartzeko eskabideak aurkezteko muga-eguna.

14.2. Agiriak biltzen dituzten gutun-azalei buruzko kanpo-adierazpenak. Kasu guztietan, lizitatuak hiru gutun-azalean aurkeztuko dituzte agiri guztiak ("A", "B" eta "C"). Gutun-azalak itxita egongo dira eta gutun-azal bakoitzaren kanpoko aldean ondoko datu hauek idatziko dira, ondo irakurtzeko moduan:

- a) Agiri honetan aipatutakoen artean zer gutun-azal den.
- b) Zer kontratutan parte hartu nahi den (adierazi behar dira espediente zenbakia eta kontratuaren xedea laburturik).
- c) Lizitatuak izena edo ordezkatzeko duen pertsonarena.
- d) Parte hartzeko eskabidea edo proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak eta zeren gisa egin duen, helbidea, telefono zenbakia, fax zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea.



- e) Gutun-azalek, nahitaez, enpresak edo hura ordezkatzeko duen pertsonak izenpetuta egon beharko dute. Aldi baterako enpresa-elkartearen bidez hainbat enpresak eskaintza egiten badute, guztiek sinatuko dituzte gutun-azalak.

14.3. Aurkezteko tokia.

- 14.3.1. Agiriak EEEen aurkeztuko dira, Bilboko Urkixo zumarkaleko 36.ean. Aipatu agiriak aurkeztu beharko dira bai paperean baita euskarri elektronikoan ere, hau da, CDean edo CDetan.

- 14.3.2. Agiriak posta arruntez bidaltzen badira, enpresak justifikatu beharko du bidaltzea zer egunetan utzi duen postetxean, eta kontratazio-organoari fax edo telegrama bidez jakinarazi beharko dio bidalketa gauzatu duela. Bi jarduera aipatuak, hau da, agiriak bidaltzea eta kontratazio-organoari bidalketaren berri ematea, gauzatu beharko dira iragarkian finkatu aurkezte-epea amaitzen den eguna eta ordua baino lehen.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, ez dira onartuko aurkezteko epea amaitzen den eguna eta orduaz geroztik jaso diren agiriak. Nolanahi ere, baldintza aipatuak bete arren muga-egunaren hurrengo hamar (10) egun naturalak igarotzean ez badira agiriak jaso, agiriak ez dira inola ere onartuko.

14.4. Agiri aurkeztuei buruzko argibideak.

- 14.4.1. Enpresak aurkez ditzake agiri eskatuen jatorrizko agiriak edo horien kopia egoki konpultsatuak, aldi baterako bermea izan ezik, zeinaren jatorrizko agiria aurkeztu beharko den.
- 14.4.2. Proposamena aurkeztu ondoren, lizitatuzaileak ezin izango du erretiratu, behar bezala justifikatuko den ezinbestekoa izan ezik.
- 14.4.3. Kontraesan, dokumentu gabezia edo falta, modu egokian irakurtzeko, eta, beraz, eskaintza behar bezala balioesteko, akatsak edo ezabaketak dituzten proposamenak ez dira onartuko.
- 14.4.4. Behin agorturik behin-behineko edo behin betiko esleitzearen kontrako helegiteak aurkezteko epeak, eta helegiterik ez bada aurkeztu, proposamenekin batera bidalitako agiriak geratuko dira horiek aurkeztu dituzten enpresen esku.
- 14.4.5. Horrela, esleipen irmoa gauzatu denetik hiru (3) hilabete igaro ondoren, EEEk erabaki dezake bila joan ez diren enpresen agiri aurkeztuak desegitea.
- 14.4.6. Agiri aurkeztuek idatzirik egon behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialtako batean (euskaraz edo gaztelaniaz). Beste hizkuntza batean idatzirik badaude, agirien itzulpen ofiziala ere aurkeztu beharko da.

14.5. Agiriak egiaztatzea. EEEk gutun-azaletan sartutako agiriak egiazkoak diren egiazta dezake, hala kontratua esleitu aurretik nola ondoren edo kontratua gauzatu bitartean, eta enpresak emandako datu nahiz zehaztasunak gezurrezkoak badira, hori kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daiteke, enpresari egotz dakiokkeen hutsegitea izateagatik; horrek behin-behineko bermea galtzea eragin dezake, edo, bermerik jarri ez edo jartzeko eskatu ez bada, berme horren besteko kalte-ordaina ordaindu beharra; gainera, EEEri eragindako kalte eta galerak bermetzat jarritako diru-zenbatekoaz gorakoak badira, bermeaz gorako alde hori ere ordaindu beharko da.

14.6. Lehiaketatik kanpo uzteko kausak. Lehiaketatik kanpo geratuko dira, erakunde kontratatzaileak behar bezala arrazoitu eta gero, honako egoera honetan leudekeen proposamenak:

- Proposamenak epez kanpo aurkeztea.
- Agiri honetan eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo gaitasun profesionala ez aurkeztea.
- Proposamen ekonomiko bat baino gehiago aurkeztea, bakarka edo beste enpresa lizitatuzaile batzuekin batera.



- d) Agiri honetan edo zehaztaperen teknikoaren pleguan eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
- e) Gutun-azal batean beste gutun-azal bati dagokion dokumentazioa aurkeztea.
- f) SPKLe eskatzen dituen baldintzak ez betetzea.

15. A GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

15.1. “A” gutun-azalari aplikatu dakizkiokeen arau orokorrak:

15.1.1. Kanpoko baldintzak eta gutun-azalaren edukia: Gutun-azal horrek izango ditu 14.2 klausulan aipatu kanpo-baldintzak eta, barruan, “Agirien zerrenda” (15.2 klausulan) zehazten diren agiriak sartuko dira.

15.1.2. Lizitatuzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialak:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dauden enpresek ez dute aurkeztu beharrik zerrendako 15.2.2, 15.2.3, 15.2.4, 15.2.5 eta 15.2.6 klausuletan jasotako agiriak, beti ere, indarreko egiaztagiriek ekartzen badituzte aipatu klausuletan aipatzen diren datuak, eta gutun-azal horretan ondoko hauek sartzen badira:

- a) Erregistro aipatuan erregistraturik egotearen indarreko egiaztagiria.
- b) Enpresaren ardurazko aitortza, zeinean adieraziko den egiaztagirian jasotako inguruabarretan ez dela aldaketarik izan. Esleipendun gertatuz gero, adierazpen hori errepikatu beharko da kontratua formalizatzeko agirian.

Kontratisten Erregistro Ofizialaren egiaztagiria eta erantzukizun-adierazpen aipatuak ez dute lizitatuzailea salbuesten hizpide dugun gutun-azalean 15.2.1, 15.2.7, 15.2.8, 15.2.9, 15.2.10, 15.2.11, 15.2.12, 15.2.13 eta 15.2.14 klausuletan aurreikusi derrigorrezko agiriak sartzetik.

- 2. Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialean izena emanda egotearen egiaztagiria izango ditu SPKLen 72.1 artikuluan ezarritako ondorioak.
- 3. Erregistro horietako egiaztagiria igorri ahal izango dira, posible bada, posta elektronikoz eta prozeduran ofizioz sartu.

15.1.3. Atzerriko enpresek kontuan izan behar dute aurreko 14.4.4 klausulan hizkuntzari buruz adierazitakoa, hau da, agiriak bi hizkuntza ofizialetako batean egon behar dutela idatzirik eta, hala ez bada, bi hizkuntza ofizialetako batera egon behar dutela itzulita.

- Europar Batasuneko enpresaburu atzerritarren jarduteko gaitasuna egiaztatuko da haien estatuko xedapenen arabera. Batasunetik kanpoko atzerritar enpresaburuek, ordea, jarduteko haien gaitasuna egiaztatu beharko dute SPKLen 44. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Egiaztatzeko enpresa atzerritarren –batasunekoaren nahiz batasunetik kanpokoaren– ekonomia- eta finantza-kaudimena nahiz gaitasun teknikoa, bete beharra dago agiri honetako 15.2.7 klausulan aurreikusitakoa.
- Enpresaburu atzerritarrek adierazpen bat aurkeztu beharko dute, eta bertan Bilboko epaitegi eta araubide juridikopean soil-soilik izateko onartuko dute, kontratuaren gorabehera zuzenetik edo zeharkakotik sor daitezkeen interpretazioen aurrean, eta hala denean, lizitatuzaileari dagokion atzerriko jurisdikzioa bazter uzteko prest dagoela adieraziz.

15.2. Agirien zerrenda:

15.2.1. Agirien zerrenda: Aparteko orri batean jasoko da gutun-azaleko edukiaren zerrenda, zenbakien bidez ordenan jarrita.

15.2.2. NAN: Bere izenean edo ahaldun gisa, parte hartzeko eskabidea edo eskaintza sinatzen duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala. Atzerriko pertsona fisikoaren kasuan, indarreko agiri baliokidea aurkeztu beharra dago.

15.2.3. Eskriturak eta estatutuak: Kontratazioaren interesa duen enpresa pertsona juridikoa denean, aurkeztuko ditu eraketa-eskriturak, aldaketen eskriturak eta estatutuak, horiek guztiak



Merkataritzako Erregistroan jasotakoak; betiere, aplika dakioken merkataritza-legeriarekin bat etorritz, baldintza hori betetzea eska badakioke. Ezin eska badakioke, aurkeztu beharko du eraketa-eskitura edo -agiria, estatutuen aldaketen agiria, edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiria. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta inskribaturik egon beharko dute dagokion erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera.

15.2.4. Ahalordetzea: Parte hartzeko eskaintza edo eskabidea sinatzen duen pertsonak ez badihardu bere izenean, edo kontratazioan interesa duen enpresa sozietatea edo pertsona juridikoa denean, sinatzaileak aurkeztu beharko du adina ahalmen ematen duen ahalordetzea. Enpresa interesduna pertsona juridikoa bada, ahalorde horrek Merkataritzako Erregistroan izena emanda egon beharko du. Ahalordea baldin bada ekimen jakin batean erabiltzekoa, ez da beharrezkoa izango, Merkataritzako Erregistroaren Arautegiko 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, hura Merkataritzako Erregistroan erregistraturik egotea.

15.2.5. Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala: Aurkeztu beharko dira, baita ere, kontratuaren xedea dela-eta eska daitekeen enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala egiaztatzen duten agiriak.

a) Azpikontrataziorik balego, enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala soilik frogatu beharko da prestazioaren parte edo atal jakin batzuetan.

15.2.6. Kontratatzeko debekuak: Kontratuaren erreferentzia espresuki dakarren egiaztageria aurkeztu beharra dago, erakusten duena enpresa interesduna ez duela SPKLen 49.1 artikuluan jasotako kontratazio-debekurik. Egiaztatze hori II. eranskinean dagoen ereduaren arabera egin beharko da

Aipatu berri duguna egiaztatu daiteke SPKLen 130.1 c) artikuluan aurreikusi moduetako batean. Nolanahi ere, zergak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak eguneratuak dituela egiaztatu behar dira dokumentu horien bidez.

15.2.7. Hautagaiek egiaztatu beharreko kaudimena eta sailkapena

Kontratu honen berezitasunak kontuan harturik, hautagaiek egiaztatu beharko dute ekonomia- eta finantza-kaudimena nahiz gaitasun teknikoa edo profesionala, jarraian aipatuko ditugun baliabideen bidez. Egiaztatu beharko dute, baita ere, ondoko talde, azpitalde edo kategoriatan haurtako batean obra-kontratista moduan sailkatuta daudela:

Gaitasun teknikoa eta profesionala:

- Lizitatuak azken bost (5) urteotan gauzatu dituen azpiestazio elektrikoak hornitzeko eta instalatzeko proiektu nagusien azalpena. Gainera, harekin batera aurkeztuko dira lan nagusien agiri grafikoak.
- Kontratuaren gauzatzean lanean ariko diren zuzendarien, teknikarien eta enpresako gainerako arduradunen deskribapena, batez ere, kalitate-kontrolerako arduradunenak. Aritu beharko dira, baita ere, lanbide-prestakuntza nahiz prestakuntza tekniko berezia eta hizpide dugun jardueran gutxienez bost (5) urteko esperientzia egiaztatzen duten langileak.
- Aurkeztuko da, baita ere, lizitatuak hornitzea edo instalatzea proposatzen duen azpiestazio elektriko mota estandarren lagina, azalpena eta argazkiak.

Sailkapena

- I taldea, 4. azpitaldea, "Azpiestazioak", "E" kategoria.

- I taldea, 5. azpitaldea, "Goi tentsioan eraldatzeko eta banatzeko zentroak", "E" kategoria.

15.2.8. Kontratu gauzatzeko baliabideak adskribatzeko konpromisoa: Agiri honetako 13.1.3 klausulan aurreikusitakoaren arabera, hautagaiek sinatuta aurkeztu beharko dute agiri honetako **I**.



ERANSKINEAN ageri den baliabide pertsonal nahiz materialak adskribatzeko konpromisoa. Behin gonbidaturik, hautagaia behin-behineko esleipendun gertatzen bada, egiaztatu beharko du baliabide horiek egiazki erabiltzeko moduan dituela eta adierazi beharko du gauzatze-baldintza bereziak nola beteko dituen. Hala badagokio, konpromisoan jasoko dira enpresa azpikontratatuak kontratua gauzatzeko adskribatuko dituzten baliabide material eta pertsonalak.

15.2.9. Izenak eta lanbide-prestakuntza: Aurreko klausulan aipatu baliabideak adskribatzeko konpromisoaz gainera, hautagaiek eman beharko dituzte kontratua gauzatu duten langile arduradunen izena eta lanbide-prestakuntza:

15.2.10. Talde bereko enpresen zerrenda. SPKLen 129.4 artikuluko bigarren paragrafoan eta APKLA Oren 86.1 artikuluan ezarritakoa betetze aldera, talde bereko enpresen zerrenda aurkeztu beharko da. Talde bereko enpresatzat hartuko dira Merkataritzako Kodeko 42.1 artikuluan zehaztu baldintzak betetzen dituztenak. Horrez gain, zehaztuko da talde bereko enpresetatik zeinek duten eskaintza aurkezteko interesa.

Talderen bateko kide ez bada, enpresak horixe agertzen duen adierazpena aurkeztu beharko du.

15.2.11. Azpikontratatistak: Oro har, hautagaiek zehaztu beharko dute kontratuaren zer parte azpikontratatu nahi duten eta parte azpikontratatu haien eskaintza guztizkoaren zer ehuneko den (sekula ez zenbatekoa). Eman beharko dute obren parte azpikontratatu gauzatu duten azpikontratisten izena edo enpresa-profila; azken hori kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzetan adierazitakoa kontuan harturik. Eskaintzan hasiera batean identifikatu diren azpikontratistetan gerora aldaketarik egin nahi izanez gero, aldez aurretik EEEri baimena eskatu beharko zaio.

Edonola ere, SPKLen 210. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ez da posible izango kontratuko %60 baino gehiago azpikontratatzea.

15.2.12. Behin-behineko bermea: Lizitzaileek **hirurogeita hamabost mila euroko (75.000 €)** behin-behineko bermea aurkeztu beharko dute. Bermea honela osatu eta gordailutu beharko da:

- a) Eskudirutan edo zor publikoko baloreetan. Eskudirua Euskadiko Diruzaintza Orokorrean gordailutuko da edo, bestela ere, dagokion erakundearen beste egoitzaren batean. Balore aipatuen ibilgetze-egiaztagiriak kontratazio organoan gordailutuko dira.
- b) Eragiteko baimena duten bankuetako, aurrezki-kutxetako, kreditu-kooperatibetako, kredituko finantza establezimenduetako edo elkarren bermerako sozietateetakoaren batek emandako abalaren bidez. Aipatu abala gordailutu beharko da kontratazio-organoaren aurrean.
- c) Arloan eragiteko baimena duen erakunde aseguratzailearen batekin kauzio-asegurua kontratatzearen bidez. Aseguruaren egiaztagiria gordailutu beharko da kontratazio-organoan.

Abala eta kauzio-asegurua Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua) araudien eranskinean azaltzen diren erduei jarraiki aurkeztuko dira.

Behin-behineko bermearen ordeztu beharko da EAEko Diruzaintza Orokorra edo dagokion erakunde publikoak emandako egiaztagiria, zeinak egiaztatzen duen berme orokorra dagoela, berme hori nahikoa dela eta osatu beharreko bermeari dagokion kopurua ibilgeturik dagoela.

Kontratua behin betikoz esleitu ondoren, behin-behineko bermea bueltan emango zaie parte-hartzaile guztiei, kontratua behin-behineko esleitu zaion enpresari izan ezik. Azken horri behin-behineko bermea atxikiko zaio, behin betiko bermea eratu arte (SPKLen 91.2 eta 91.4 artikulua).



Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, behin-behineko bermea era dezake elkartean parte hartzen duten enpresetako batek edo batzuek, baldin eta guztira lortzen bada zenbateko oso eskatua, eta aldi baterako elkartea osatzen duten enpresa guztiak elkartasunez babesten badira.

15.2.13. Esleitze-lehentasunak: Kontratazioan interesa duen enpresak nahi baldin badu –betiere, horretarako baldintza egokiak gertatzen badira– hari aplikatzea 23.2 klausulan jaso diren esleitze-lehentasunak, hizpide dugun gutun-azalean ondoko agiri hauek sartu beharko ditu:

- a) Klausula aipatuko a) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, aurkeztu beharko dira Gizarte Segurantzako TC2 agiria –enpresan diren langileei buruzko egiaztagiria– eta enpresak sinatutako adierazpena, zeinean zehaztuko den 100eko 33ko edo gehiagoko ezgaitasun-ehunekoa duten langileen kopurua eta berorien nortasun agiriak.
- b) Klausula aipatuko b) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, enpresak aurkeztu beharko du lan elkartuko kooperatiba eta bigarren mailako edo maila txikiagoko kooperatiba izatearen egiaztagiria.
- c) Klausula aipatuko c) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, enpresak aurkeztu beharko du, batetik, dagokion erregistro publikoan erregistraturik egotearen egiaztagiria eta, bestetik, adierazi beharko du konpromisoa hartzen duela aipatu klausulan aipatzen diren taldeetako pertsonekin gutxienez lanpostuen ehuneko 30 betetzeko.

15.2.14. IX. eranskina behar bezala betetzea.

15.2.15. Enpresa atzeritarren jurisdikzioa. Enpresaburu atzeritarrek adierazpen bat aurkeztu beharko dute, eta bertan Bilboko epaitegi eta araubide juridikopean soil-soilik izateko onartuko dute, kontratuaren gorabehera zuzenetik edo zeharkakotik sor daitezkeen interpretazioen aurrean, eta hala denean, lizitatzailari dagokion atzerriko jurisdikzioa bazter uzteko prest dagoela adieraziz.

15.3. Aldi baterako enpresa-elkartea. Hainbat enpresak parte hartu nahi dutenean aldi baterako enpresa-elkartean baturik, enpresa horietako bakoitzak egiaztatu beharko du, aurreko klausuletan araututakoaren arabera, jarduteko bere gaitasuna eta bere kaudimena, hau da, elkartea osatzen duten enpresa guztiek aurkeztu beharko dituzte “A” gutun-azaleko agiri guztiak.

Nolanahi ere, aldi baterako enpresa-elkarte batek ekonomia- eta finantza-kaudimena nahiz gaitasun teknikoa edo profesionala eta, aurreko 15.2.7 klausulan aurreikusitakoaren arabera, obren kontratista sailkapena izatea egiaztatzen duen balioeste aldera, enpresaburu bakoitzaren banakako ezaugarriak metatuko dira.

Aldi baterako enpresa-elkarte moduan parte hartu nahi dutenek, halaber, proposamen-idatzia aurkeztu beharko dute, zeinean ondoko hauek adieraziko dituzten: proposamena izenpetzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak; enpresa bakoitzaren parte-hartzea; eta, azkenik, zer pertsona fisiko izendatuko duten, kontratutik eratortzen diren betebeharrak nahiz eskubideak betetzeko nahikoa ahalorde izango duen ordezkari edo ahaldun bakarra izan dadin.

Agiri hori sinatu beharko dute aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariak. Kontratua enpresa-elkarteari esleitu bazaio, orduan elkartea eratzeko eskritura publikoa egin beharko da erakunde kontratatzailearen aurrean.

16. “B” GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA

16.1 “B” gutun-azalari aplikagarriak diren arau orokorrak.



Kanpoko baldintzak eta gutun-azalaren edukia: Gutun-azal horretan 14.2 klausulan aipatzen diren dokumentuak izango dira, eta barruan “dokumentuen zerrenda” izeneko atalean adierazten direnak edukiko ditu (16.2 klausula).

16.2. Dokumentuen zerrenda.

16.2.1 Gutun-azal horren barruan sartuko dira iritzia ematearen bidez aplikatzekoak diren eta agiri honetako 18 klausulan aipatu diren esleipen-irizpideak balioesteko beharrezkoak diren agiriak. Edonola ere, gutun-azal horretan ez da sartuko inolako dokumenturik eskaintza ekonomikoaz edo formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideei dagokienez.

Nolanahi ere, lizitatuzaileek derrigor aurkeztu beharko dituzte ondoko agiri hauek, paperean nahiz euskarri digitalean (PDF formatuan):

16.2.2 Txosten tekniko deskribatzailea, Eskaintzak esleitzeko irizpide diren aldetik, agiri horiek balioesteko ondoko alderdi hauek hartuko dira kontuan:

Txosten deskribatzailea baliagarria izango da azpiegituraren diseinuaren nondik norakoak argi eta garbi adierazteko.. Zehaztuko da, bereziki, hornitu beharreko materialak eta ekipoak, planoak, kalkuluak, datu-orriak. denboren planifikazioa eta abar.

Txostenak bete beharko ditu baldintza tekniko berezien agirian ezarri baldintzak (11.3.1 klausula)..

Lan-programa idatzi beharra dago, baldintza tekniko berezien agiriko 11.3.1 klausulan zehaztutakoez gainera, ondoko argibide hauek kontuan izanik:

Kontratatutako planifikatutako du kontratuaren gauzatzea. Horretarako, kontuan izango ditu, batetik, txostenean azaldutako jardura bakoitzari adskribaturiko giza baliabideak nahiz baliabide material eskainiak eta, bestetik, baldintza tekniko ezarriak. Kontratatutako, beraz, justifikatu beharko ditu epe eskainia bermatuko duten batez besteko errendimendu aurreikusiak.

Lan-programa idaztean, kontratua gauzatzeko guztizko epe maximoa hartuko da agiri honetako 11. klausulan zehaztu epeztat. Horrez gain, lan-programan jasoko dira kontratua gauzatzeko fase edo une garrantzitsuei dagozkien gauzatze-inbertsio partzialak.

Lizitatuzaileek segurtasun- eta osasun-plana idatziko dute, zeinean, gutxienez, ondoko hauek adieraziko diren:

- a) Sistema bat ezartzea, langileek laneko arriskuak prebenitzen parte har dezaten kontratua exekutatzeko.
- b) Kontratuaren gauzatzean ariko diren langileak informatzeko eta trebatzeko bideak.
- c) Antolatzea kontratutako faseetako prebentzioa eta segurtasuna. Horretarako, landu beharko dira organigrama, funtzioak eta koordinazioa azpikontratatutekin nahiz langile autonomekin.

Eskaintzak balioesteko fasean lan-programa aztertzeak eta balioestek ez du esan nahi EEEk hura onetsi duenik. Onetsia izateko, lan-programak behar du gero eta berariazko onespenez zehatza.

16.2.3 Hobekuntzak. Hala badagokio, aurkeztu beharko dira eskaintzen diren hobekuntzei buruzko agiriak, ondoko hauek gogoan harturik:

- a) Hobekuntzek ez dute eraginik izango kontratutako prezioaren gain eta, EEEk berariaz onartzen baditu, kontratuaren parte izango dira.
- b) Edonola ere, eskaintzan jasotzen diren hobekuntza guztiak banan-banan aztertuko dira. Horrela, kontratazio-organoak erabakiko du kontratuan hobekuntza horietako bat, batzuk edo bate ere ez jasotzea.



16.2.4 Konfidentzialtasuna: Beharrezkotzat joz gero, enpresak zehaztu beharko du gutun-azal honetan jaso eskaintzaren informazio eta alderdietatik zein diren konfidentzial, lotura izateagatik sekretu tekniko edo merkataritzako sekretuekin. Enpresak azaldu beharko ditu lotura horren arrazoiak. Horretarako, enpresak VI. eranskinean azaldu beharko ditu konfidentzialtzat jotzen dituen informazioak eta alderdiak.

17. “C” GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU AHAL DIREN IRIZPIDEEI LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA

17.1 “C” gutun-azalari aplikagarriak diren arau orokorrak.

Kanpoko baldintzak eta gutun-azalaren edukia: Gutun-azal horretan 14.2 klausulan aipatzen diren dokumentuak izango dira, eta barruan “agirien edo dokumentuen zerrenda” izeneko atalean adierazten direnak edukiko ditu paperean edo euskarri digitalean.

17.2. Agirien zerrenda: Aparteko orri batean jasoko da gutun-azalaren edukiaren zerrenda, zenbakien bidez ordenan jarrita.

17.2.1 Eskaintza ekonomikoa: Lizitatzailleek eskaintza ekonomiko bakarra aurkeztuko dute, enpresak (enpresaburu bakarra bada) edo haren ordezkariak (enpresa pertsona juridikoa baldin bada) sinatua. Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, agiri aipatua sinatu beharko dute elkartean parte hartzen duten enpresa guztien ordezkariak.

Eskaintza idatzi beharra dago agiri honetako IV. ERANSKINEAN ageri den ereduari jarraiki. Eskaintzen den prezioaren barne izango dira aplikatu beharreko zerga, tasa eta kanon guztiak, baita ere, eskaintza aurkeztetik erator daitezkeen edo agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunari sor dakioken zeinahi gastu –BEZ salbu–.

17.2.2 Halaber, proposamen ekonomikoaren banaketa edo zehaztapena aurkeztuko da, baldintza tekniko berezien agirian dagoen 9. Atalaren arabera.

18. ESKAINTZAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK ETA NEGOZIATUKO DIREN ALDERDIAK

1) **Iritzia ematearen bidez ebalua daitezkeen irizpideak:** gehienez ere **50 puntu**, jarraian adierazi bezala banaturik:

a) **Txosten tekniko deskribatzailea: 47 puntu.**

Baldintza tekniko berezien agiriko 11.3.1 atalean eskatzen den dokumentazioa balioetsiko da, honako era honetan banatuta:

a) 1. **Azpiestazioaren ekipo teknikoen ezaugarriak, instalazioak eta materialak: 35 puntu.**

Azpiestazioaren ekipo teknikoen ezaugarriak, instalazioak eta materialak balioetsiko dira, baita haien bermeak ere; txosten tekniko deskribatzailean eskatzen diren datu-orrietan, zehaztapen teknikoetan, azalpenetan eta planoetan azalduak. Horrekin batera, eskaintzen diren ekipoen erreferentziak eta ordezkoen zerrenda ere balioetsiko dira.

a) 2. **Eskaintzen den egitasmoaren kalitatea: 5 puntu.** Txosten tekniko deskribatzailean azaltzen den dokumentazioaren zehaztasuna, argitasuna, doitasuna eta maila balioetsiko da.

a) 3. **Lan-programa/gauzatzeko egitasmoa: 7 puntu.** Aurkeztzen den lan-programaren koherentzia balioetsiko da. Era berean, obran erabiliko diren giza baliabideak (gaitasuna eta kualifikazioa) eta baliabide materialak balioetsiko dira. Horrekin batera, segurtasun- eta osasun-plana eta ingurumen txostena ere kontuan hartuko dira.

b) **Hobekuntzak: 3 puntu**



Baldintza tekniko berezien agiriko 11.3.2 atalean azaltzen diren irizpideen arabera balioetsiko dira hobekuntzak.

2) **Formulak aplikatzearen bidez automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak**: gehienez **50 puntu**, jarraian adierazi bezala banaturik:

a) **Eskaintza ekonomikoa: gehienez 50 puntu**. Ondoko prozedura hau aplikatuko da eskaintza ekonomiko orokorreko prezio orokorra puntuatzeko:

Batez besteko eskaintza kalkulatu da, eta hura eskaintza guztien batez besteko aritmetikotzat hartuko da. Batez besteko horren pareko eskaintzek 25 puntu jasoko dituzte. Batez besteko eskaintza hori hobetzen den 0,8 ehuneko bakoitzeko puntu bat gehituko da puntuazioan; eta, aitzitik, batez besteko eskaintza hori baino 0,8 ehuneko bakoitzeko okerragoa egiten bada, puntu bat gutxiago jasoko da. Edonola ere, puntuazio maximoa ez da inoiz 50 puntutik gorakoa izango, ezta zero puntutik beherakoa ere. Puntuazioa kalkulatzeko bi dezimal erabiliko dira.

Hasiera batean, eskaintza batek ezohiko edo gehiegizko balioak dituela epaitzerakoan erabiliko den irizpidea hau da: onartutako proposamenen batez bestekotik 20 puntu beherago bada.

III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA, AGIRI OROKORRAK KALIFIKATZEA ETA ESKAINTZAK EBALUATZEA

19. “A” GUTUN-AZALA (DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA) IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA

Behin proposamenak aurkezteko epea amaiturik, kontratazio-mahaiak aztertuko eta kalifikatuko ditu denbora eta modu egokian haien eskaintza egin duten lizitatzailer guztiek “A” gutun-azalean (dokumentazio administratiboa) aurkeztu dituzten agiriak.

Hautematen bada konpon daitezkeen akatsak edo ahazteak daudela agiri aurkeztuetan, enpresa erasanei gertakari aipatuaren berri emango zaie posta arruntez edo ofizioz ala posta elektronikoz edo faxez. Enpresek **gehienez hiru (3) eguneko epea** izango dute akatsak edo ahazteak zuzentzeko kontratazio-mahaiaren aurrean.

Aurreko klausulan aipatu konpontzea alde batera utzita, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak egiaztatze aldera, kontratazio-mahaiak eska diezazkioke enpresari egiaztargiri edo agiri aurkeztuei buruzko azalpenak edo, bestela ere, eska diezaioke agiri osagarriak aurkez ditzala. Enpresa erasanak bost eguneko epea izango ditu azken horiek aurkezteko. Agiri osagarriak, bidenabar, ezin izango dira aurkeztu hurrengo paragrafoan aipatzen den onartze-adierazpena gauzatu ondotik.

Behin agiriak kalifikatuta eta, hala badagokio, akatsak edo ahazteak konponduta, kontratazio-mahaiak proposatuko dio kontratazio-organoari agiri honetan aurreikusitakoaren arabera kaudimena frogatu duten eta lizitazioan onartuak izango diren hautagaien zerrenda. Proposamen horretan, halaber, kontratazio-mahaiak adieraziko du zer enpresa baztertu diren eta zergatik.

Kontratazio-organoak, eskatzaileen izena eta kaudimena egiaztatu ondotik, lizitatzailer onartuen eta baztertuen zerrenda onartuko du, eta lizitatzailer haren berri emango die.

Enpresa parte-hartzaileen eskura izango da eskaintza aurkezteko onartuak izan diren enpresen, enpresa baztertuen eta baztertzearen arrazoiak ekartzen dituen zerrenda, eta kontratazio-mahaiaren



aurrean kontsulta dezakete. Kontratazio-mahaiak, nolahi ere, zerrenda aipatua argitaratu dezake, aipatu organoaren iragarki-oholean iragarkiak jarriz edo sistema elektronikoaren, kontratatzailearen profilean edo prozeduran egoki diren beste bide batzuen bidez. Edonola ere, aipatu zerrenda publikoki irakurriko da eskaintza ekonomikoak jendaurrean irekitzeko ekitaldian.

20. “B” GUTUN-AZALA (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA) IREKITZEA ETA EBALUATZEA

(A) gutun-azalak ireki ondoren, eta hala badagokio, akatsak zuzendu eta gero, erakunde kontratatzaileak eratu da jendaurrean izango den saio batean, adieraziko den leku, egun eta orduan, eta eskaintzak irekiko dira jendaurrean honako helburu hauekin.

- a) Lizitatzaleei onartutako proposamenen berri ematea; baita baztertutakoena eta baztertzeko arrazoiak zeintzuk izan diren. Horren berri emateaz gain, onartutako enpresen zerrenda Erakunde Kontratatzaileak duen kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da, eta edozein bidez jakinaraziko zaie onartuko ez diren enpresei.
- b) (B) gutun-azala (formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei lotutako dokumentazioa) ireki eta irakurtzea, erakunde kontratatzaileak ekitaldian izango diren lizitatzaleak edo haien ordezkariak gonbidatuko ditu gutun-azalak aldatu gabe daudela egiaztatzen.

Egokitzen jotzen baldin badu, lizitazioan parte hartzeko onartuko diren enpresak zehaztutakoan, erakunde kontratatzaileak B gutun-azalak bidaliko dizkio sailaren zerbitzu teknikoei, azken honek ebaluatzeko dokumentazio hori. Hain zuzen ere, aurkeztuko diren proposamenen azterketaz zerbitzu teknikoak arduratuko dira. Lan hori egiteari begira, behar diren txostenak eta aholkularitza eskatu ahal izango ditu. Gainera, lizitatzaleek aurkeztutako dokumentazioaren inguruan argibideak eskatu ahal izango dizkie.

Agiri teknikoak ebaluatzeko eman den epearen barruan, erakunde kontratatzaileari bidaliko zaizkio agiri aztertuak (agiri-sorta bakoitza bere gutun-azalaren barruan) eta ebaluazio-txostena. Azken horrekin batera aparteko orri bat bidaliko da, zeinean bilduko diren gutun-azal jasoen zerrenda eta enpresa bakoitzak aurkeztutako agiriak.

Hurrengo fasera pasatzeko, lizitatzaleek lortu behar dute, gutxienez, agiri honetako 18.1. klausulan jasotako irizpideen guztizko puntuazioaren %50. Puntuazio hori lortzen ez duten lizitatzaleak lizitaziotik kanpo geratuko dira eta, horrenbestez, ez da haien “B” gutun-azala irekiko.

Ebaluazioaren emaitza eskura izango da enpresa lizitatzaleek kontsultatu ahal izateko, publikoa ere egin liteke (EEEren erabakiaren arabera) eta argitaratuko da erakunde kontratatzailearen iragarki-oholean iragarkiak jarriz, edo sistema elektronikoaren bidez (kontratatzaile-profilaren edo prozeduran egoki diren beste bide batzuen bidez). Edonola ere, aipatu emaitza publikoki irakurriko da, C gutun-azala jendaurrean irekitzeko ekitaldian.

21. “C” GUTUN-AZALA (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU AHAL DIREN IRIZPIDEEI LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA) IREKITZEA ETA EBALUATZEA

Eskaintzak publikoki irekitzeko toki, egun eta ordu zehaztua –inoiz ez dena izango proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epea baino geroago–erakunde kontratatzaileak jakinaraziko du, ekitaldi publikoan eta APKLAOk 83. artikuluan ezarri baldintzatan, enpresa parte-hartzaileen kopurua eta haien izena. Zehaztuko ditu, baita ere, enpresa onartuak, baztertuak eta ez-onartzearen zioak.



Horren ondoren, ahoz jakitera emango da “B” gutun-azalak irekitzearen emaitza; gutun-azalean aurkeztu agirien ebaluazioaren emaitza; eta, horrelakorik balego, agiri honetako 20. klausulan aipatu gutxieneko puntuazioa lortu ez eta lizitaziotik kanpo geratu diren lizitatzailleak.

Ondoren, lehen fasea gainditu duten lizitatzailen “C” gutun-azala (formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideei lotutako dokumentazioa) irekiko da eta lizitatzaille onartuek aurkeztu eskaintza ekonomikoak irakurriko.

22. ESKAINTZAK EZ ONARTZEA

Arestian aipatutakoez gainera, ez dira onartuko ondoko ezaugarri hauek dituzten eskaintzak:

- a) Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo zirriborroak dituzten eta eskaintza kontuan hartzeko EEEK funtsezkotzat jotzen dituen zehaztasunak argi jakitea galarazten duten eskaintzak.
- b) Aztertu eta onartu diren agiriekin bat ez datozenak.
- c) Lizitazioko gehieneko aurrekontua gainditzen dutenak.
- d) Baldintza tekniko berezien agiriko 9. klausulan eta IV. eranskinean ezarritako eskaintza ekonomikoaren ereduaz oso bestelakoak direnak.
- e) Eskaintzaren zenbatekoan akats nabarmena dakartenak.
- f) Lizitatzailleak onartzen badu akats edo funsgabetasunen bat gertatu eta proposamena bideragarria ez dela.

IV.- ESKAINTZAK EBALUATZEA ETA SAILKATZEA, KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA ADJUDIKAZIOAREN BERRI EMATEA

23. ESKAINTZAK EBALUATZEA

23.1 C gutun-azala jendaurrean zabaldu ondoren, erakunde kontratatzaileak gutun-azal horri dagokion dokumentazioa kanpoko organo bati bidali ahal izango dio, eta hala badagokio, onartutako enpresen B gutun-azalaren ebaluazioari buruzko emaitza. Kontrataziorako aholkularitza lanak egiten dituen organo horrek txosten tekniko globala egingo du eskaintza guztien artean. ; betiere, gutun-azal horien inguruko ebaluazioak aintzat hartuta.

Era berean, erakunde kontratatzaileak behar beste txosten eskatu ahal izango du, kontratua era egokienean esleitzeari begira.

Aurrekoa egin eta gero, erakunde kontratatzaileak dagokion proposamen egingo du, eskaintzak balioesteko irizpideak eta 23.2 klausulan azaltzen diren lehentasunak kontuan hartuz.

23.2. Esleitze-lehentasunak: Negoziazioaren ondorioz gertatu diren baldintzei so, bi proposamen edo gehiago onuragarrienetan berdinduta badaude eta “A” gutun-azalean aurkeztu badituzte 15.2.3 klausulan aurreikusitako egiaztagiria, hauek izango dira esleitzean lehentasuna izango duten enpresak:

- a) Gaitasun teknikoa egiaztatzeko unean, langileen artean 100eko 33 edo gehiagoko minusbalioetasuna duten langileen ehunekorik handiena duen enpresa, betiere, ehuneko aipatua baldin bada enpresako langileen 100eko 2tik gorakoa.
- b) Lan elkartuko kooperatibak eta bigarren mailako edo maila txikiagoko kooperatibak.
- c) Pertsona baztertuak laneratzearen eta sustatzearen alde lan egiten duen enpresa, beti ere, enpresak konpromisoa hartu badu lanpostuen gutxienez ehuneko 30a betetzeko jarraian aipatuko ditugun taldeetako pertsonekin, zeinen egoera egiaztatu beharko duten gizarte-zerbitzu publiko eskumendunek. Hauek dira taldeak:



- Txertaketako errenta minimoak, haren antzeko izaerako edo izaera bereko sariak jasotzen dituzten pertsonak, betiere, gogoan harturik autonomia-erkidegoetan izen desberdina izan dezaketela.
- Aurreko paragrafoan aipatu sariak jaso ezin ditzaketen pertsonak, egoitza- edo erroldatze-epe eskatua bete ez izanagatik, edo sariaren unitate jasotzailea osatzeko epea bete ez izanagatik, edo legez ezarritako jasotze-epe maximoa agortu izanagatik.
- Hamazortzi urtetik gorako eta hogeita hamar urtetik beherako gazteak, adingabeak babesteko erakundeetatik datozenak.
- Droga-menpekotasun edo alkoholismo arazoak eduki eta errehabilitazio- ala gizarteratze-prozesuetan sarturik dauden pertsonak.
- Espetxeratuak –zeinen espetxe-egoerak aukera ematen dien lanean aritzeko– baldintzapean askatuak eta preso ohiak.
- Pertsona minusbaliatuak.

Lehentasunak aplikatzeko orduan, lehenetsiko da aurreko ezaugarrietatik bat baino gehiago biltzen dituen enpresaren proposamena. Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez, lehentasunak zenbatetsiko dira lizitatzailerako bakoitzak enpresa-elkartean duen ehunekoaren arabera.

Irizpide horiek guztiak aplikatuta ere proposamenen arteko berdinketa hautsi ez bada edo, aurreko paragrafoan aipatutakoarekin bat etorritik, enpresa bat berak ere ez badu esleitze-lehentasunik, kontratua esleituko zaio –betiere, esleitze-irizpide ugari badaude– guztietan pisu gehien duen irizpidean puntuaziorik handiena jaso duen proposamenari. Irizpide hori aplikatuta ere berdinketa hausten ez bada, irizpide bakoitzari eman zaion garrantziaren ordenari erreparatuko zaio. Aitzitik, prezioa baldin bada eskaintzak balioesteko irizpide bakarra, berdinketa zozketa bidez hautsiko da.

23.3. Argibideak. Aukeratuko den proposamena formulatu aurretik, erakunde kontratatzaileak eskatu ahal izango dizkie enpresei argibideak, idatziz emango dituzten argibide horiek eskaintzak hobeto ulertzeko izango dira. Nolanahi ere, argibideak ematean ez da onartuko eskaintzan egindako proposamena aldatzea enpresa lizitatzaileraren aldetik. Hori horrela, informazio hori gorabehera, hasierako proposamenaren edukia izango da aintzat hartuko dena.

23.4. Balio ezohikoak edo gehiegizkoak. Erakunde kontratatzaileak proposatutako eskaintzaren batek edo batzuek balio ezohikoak edo gehiegizkoak dituztela uste badu, haren berri emango dio kontratazio organoari, eta egokitzen joko dituen behar beste txosten aurkeztuko ditu. ,

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak izango ditu honako baldintza hauek betetzen baditu: onartutako proposamenen batez bestekoaren aldean ehuneko hoge gutxiago denean.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak dituela adierazi baino lehen, harekin zerikusia duten pertsonen informazioa eskatu eta eman beharko litzaieke. Gainera, dagokion zerbitzu teknikoaren aholkularitza emango zaio eta kontratazio mahaiak txostena egingo luke, eta lizitazioan enpresa lotuek eskaintza desberdinak aurkeztu badituzte, kontuan hartuko da SPKLen 129.4 artikuluko bigarren paragrafoan eta APKLAOren 86.1 artikuluan xedatutakoa.

Lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen bada, erabakia justifikatu beharra dago Europako Ekonomia Erkidegoko kontratu publikoetarako Aholku Lantaldearen aurrean.



Lizitaztailearen justifikazioa entzun ondoren eta aipatutako txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organoak uste badu proposamena betetzea ezinezkoa dela, balio ezohiko edo gehiegizkoak edukitzeagatik, proposamena bazter utziko du.

24. PROPOSAMENEN SAILKAPENA ETA ESKAINTZA EKONOMIKA EGOKIENA AUKERATZEA

24.1 Erakunde kontratatzaileak kontratazio-organoari aurkeztutako proposamen zerrenda helaraziko dio, balio ezohiko edo gehiegizkoak dituela jo ez diren proposamenak, hain zuzen ere, SPKLen 136 artikulua arabera, behetik gorako sailkapenari jarraiki, agirian zehazten diren irizpideekin bat etorriz, eta onartutako eta baztertutako proposamenak adieraziko dizkio.

Goraxeago aipatutako sailkapenarekin batera, aktak, egindako txostenak, eskaintza ekonomiko egokienaren identifikazioa eta komenigarritzat jotzen diren oharak ere bidaliko dira.

24.2 Eskaintza ekonomiko egokienaren identifikazioak ez dio ekarriko inolako eskubiderik aukeratuko den lizitaztaileari EEEren aurrean. Esleipen-proposamenarekin bat etortzea: Oro har, behin-behineko esleipena bat etorriko da kontratazio-mahaiak egin proposamenarekin. Horrela ez bada, kontratazio-organoak proposamena bazter uzteko erabakia hartu izanaren arrazoiak eman beharko ditu.

25. AUKERATUTAKO ESLEIPENDUNAK AGIRIAK AURKEZTEA ADKJUDIKAZIOA EGITEKO

25.1 Araua orokor gisa, adjudikatzeko hautatutako lizitaztailea aukeratzeko, kontratazio-organoak erakunde kontratatzaileak egindako proposamenari egingo dio kasu. Horrela ez balitz, kontratazio-organoak bere erabakia arrazoitu beharko du, eta hala badagokio, proposamenen behin betikoa egingo du.

25.2 Hamar (10) egun baliouduneko epean –eskakizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita– eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztutako lizitaztaileak edo enpresak ondoko hauek egiaztatzekeo agiriak aurkeztu beharko ditu:

- a) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatea.
- b) Behin betiko bermea eratu izana.
- c) Iragarki ofizialen zenbatekoa ordaindu izana.
- d) Egiaztatzea, hala badagokio, kontratuaren parte edo zati jakin batzuetarako eskatzen den gaitasun edo baimen profesionala duela eta, horrenbestez, azpikontratazio-konpromisoa aurkeztu duen enpresa formalizatu beharko da eskritura publiko bidez.
- e) Enpresaren kontratatzekeo gaitasunaren beste egiaztagiriri batzuk, edo kontratazio-organoak eskatzen dizkion eta enpresak kontratua gauzatzeko erabiliko dituela hitz eman duen baliabideak egiazki dituela erakusten duten egiaztagiriak.

25.3 Zerga-betebeharrak beteta izatea egiaztatzekeo, lizitaztaileek ondoko agiri hauek aurkeztu behar dituzte (APKLA Oren 13 eta 15. artikulua):

- a) Jarduera Ekonomikoen Zergaren azken ordainagiria edo, enpresa sortu berria bada eta oraindik ez badu Jarduera Ekonomikoen Zerga ordaindu beharrik izan, zerga horretan alta eman izanaren agiria. Edonola ere, alta ematearen agiria aurkeztu beharko da ordainagiri emana ez bada jaso jardueraren epigrafean. Agiri horietan jaso beharko da kontratuko xedeari dagokion epigrafea, zeinak enpresa gaitzen duen diharduen lurralde-eremuan aritzeko. Horrez gainera, aurkeztu beharko da enpresaren erantzukizuneko adierazpena, erakusten duena enpresak ez duela baja hartu Jarduera Ekonomikoen Zergaren matrikulan. Aurkeztu badira Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialeko egiaztagiria eta enpresaren erantzukizun-adierazpena –



egiaztatzen duena egiaztagirian jasotako inguruabarrak aldatu ez direla– ez dira aurkeztu beharko zergan bajaran eman ez izanaren agiria izan ezik gainerako beste guztiak.

- b) Zerga Administrazioiko organo eskumendunak emandako egiaztagiri positiboa, APKLAOren 15.2 artikuluan jasotako baldintza formalak biltzen dituena. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan izena emanda egoteari buruzko indarreko egiaztagiria edukitzea egiaztatzen edo egiaztatu dutenek ez dute egiaztagiri hori aurkeztu beharrik, betiere, indarraldi aipatuak dirauen bitartean eta aldatu ez badira dagokion egiaztagirian jasotako inguruabarrak. Enpresak, bidenabar, bi egitate horiek berariaz adierazi beharko ditu kontratua formalizatzeko agirian.

APKLAOko 13. artikuluan jaso diren zerga-betebeharrei buruzko aitorten edo agiri guztiak ala horietako batzuk aurkeztera derrigorturik ez dagoen enpresak baldintza hori egiaztatu beharko du erantzukizun-adierazpenaren bidez.

25.4 Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete izana egiaztatuko da agintaritza administratibo eskumendunak igorritako egiaztagiri positiboaren bidez, zeinak beteko dituen APKLAOren 15.2 artikuluan jasotako formazko baldintzak. Salbuespenen bat kontuan hartu behar bada, hura egiaztatu beharko da erantzukizun-adierazpenaren bidez. Enpresak prozeduran barrena egiaztatu badu Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoela, ez du egiaztagiri hori aurkeztu beharrik, betiere, indarraldi aipatuak irauten duen bitartean eta aldatu ez badira dagokion egiaztagirian jasotako inguruabarrak. Enpresak, bidenabar, bi egitate horiek berariaz adierazi beharko ditu kontratua formalizatzeko agirian.

25.5 Behin betiko bermea eratu eta egiaztatuko da agiri honetako VII. eranskinean dagoen ereduaren arabera.

25.6 Iragarki ofizialak ordaindu izanaren egiaztagiriak, esleipendunaren kontura joango dira behin argitaratuko diren kontratuaren iragarkiak honako leku hauetan: Estatuko Buletin Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian.

25.7 Adierazitako epean eskakizunak betetzen ez badira, lizitatzailleak bere eskaintza bazter utzi duela ulertuko da, eta, beraz, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurren lizitatzailleari, sailkatutakoaren hurrenkera kontuan hartuta.

26. KONTRATUA ADJUDIKATZEA EDO ESLEITZEA ETA HAREN BERRI EMATEA

26.1. Kontratua esleitzea.

26.1.1 Aurreko atalean aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak bost (5) asteguneko epean esleituko du kontratua.

26.1.2 Esleipenak arrazoiturik egon behar du, eta bi (2) hilabeteko epean egin ezean, C gutun-azalak zabaltzen diren egunetik kontaktzen hasita, enpresa lizitatzailleek euren proposamenak erretiratzeko eskubidea izango dute.

26.1.3 Esleitu gabe uztea. Kontratazio organoak ezin izango du lizitazioa esleitu gabe utzi, baldin eta pleguan zehaztutako irizpideekin bat datoren eskaintza onargarriren bat bada.

26.1.4 Esleipenari uko egitea eta prozedura deuseztatzea. Esleipena egin aurretik, kontratazio organoak, espedientean behar bezala arrazoituta eta interes publikoaren arrazoiak tartean daudenean, kontratuaren esleipenari uko egin ahal izango dio, edo kontratua prestatzeko edo esleitzeko prozeduraren inguruko araei lotutako arau hauste gertatuz gero, esleitzeko prozedura deuseztatu ahal izango du.



Horrelako kasuak gertatuko balira, EEEK lizitazaile bakoitzari emango lioken kalte-ordaina hirurehun (300) eurokoa izango litzateke.

26.2 Esleipenaren jakinarazpena eta argitaratzea

26.2.1 Hautagaiei eta lizitazaileei esleipenaren berri emango zaie, eta, aldi berean, kontratzailearen profilean argitaratuko da.

26.2.2 jakinarazpena hainbat bide erabiliz egin daiteke, betiere, jasotzaileak hartu edo jaso izanaren egiaztatzea izateko moduan, eta honako azalpen hau eramango du:

- a) Baztertutako lizitazaileei dagokienez, haien hautagaitza baztertzeko zioen azalpen laburtua.
- b) Esleitzeko prozeduran baztertutako lizitazaileei dagokienez, haien eskaintza baztertzeko zioen azalpen laburtua.
- c) Nolanahi ere, esleipendunaren izena, aukeratutako esleipendunaren proposamenaren funtsezko ezaugarriak eta abantailak azalduko dira, gainerako eskaintzen aldean.

26.2.3 Motibazioari aplikagarria izango zaio SPKLen 137. artikuluan jasotzen den konfidentzialtasunari buruzko salbuespena.

26.2.4 Jakinarazpena zein kontratzailearen profilean adierazi behar da kontratua formalizatzeko epea, SPKLen 140. artikuluan xedatutako betez.

V.- KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA PUBLIZITATEA

27. KONTRATUA FORMALIZATZEA

27.1 Epea. Kontratua hamabost (15) egun baliouduneko epea igaro aurretik formalizatu behar da, esleipena lizitazaileei eta hautagaiei jakinarazten zaien eginetik kontatzen hasita.

Horrelako kasuetan, kontratazio-organoak esleipendunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko bost (5) eguneko epean, hori egiteko eskatzen zaion egunaren biharamunean kontatzen hasita.

27.2 Egiaztatzearen aurkezpena. 27.1 atalean aipatutako epeen barruan eta kontratua formalizatu aurretik, esleipendunak honako egiaztapenak hauek aurkeztu beharko ditu: agiri 10 asteguneko epe horretan eta kontratua sinatu aurretik, ondoko egiaztapenak hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Agiri honetako 33. klausulan ezarri aseguruetako polizak edo egiaztapenak.
- b) Esleipenduna aldi baterako enpresa-elkartea bada, aurkeztu beharko du aldi baterako elkartearen eratzeari buruzko eskritura publikoa (SPKLen 48. artikulua), zeinak iraun behar duen kontratua amaitu arte.

27.3 Formalizatu baino lehen ezin izango da kontratua gauzatu hastea, SPKLen 97. artikuluan aurreikusten diren kasuetan izan ezik.

27.4 Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Alde biek eska dezakete eskritura pribatu bihurtzea, eta hori egiteko gastuak eskatzen duen aldeak ordaindu beharko du.

27.5 Formalizazioaren ondorioak

27.5.1 Kontratua 27.1 atalean zehazten diren epeetan formalizatzen ez bada, Administrazioari egotzi dakizkikeen kausak tarteko, kontratatari kalte-ordaina ordainduko zaio, atzerapen horrek ekar ditzakeen ondorioengatik.



27.5.2 Esleipendunak ezin badu, hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua epe zehaztuaren barruan formalizatu, Administrazioak behin behineko bermearen zenbatekotik behin betikoa behinekoa baitu ahal izango du.

27.6 Kontratu formalizatzetik eratorriko diren gastu guztiak esleipendunak ordainduko ditu.

28. KONTRATUEN FORMALIZAZIOAREN PUBLIZITATEA

Kontratuaren formalizazioa edo sinatu beharreko kontratu guztiak argitaratzeari edo publizitatea emateari dagokionez, KABIren edo SPKLen 138. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuko da, aplikagarria baldin bada.

VI.- KONTRATUA GAUZATZEA

29. ASEGURATZE KONPLEXUAREN MEKANISMOAK

EEE izango da proiektua gauzatzeko eta azpiegiturak gerora funtzionatzeko beharrezkoak diren aseguratze-mekanismoak harpidetzeko arduraduna (LLOYDS edo antzekoak). Esleipendunak ordaindu beharko ditu kontratu hau gauzatzeko faseari dagozkion aseguru-mekanismoen kostua – gehienez 25.000 euro–. Aseguruaren frankizia, bestetik, kontratistaren kargurakoa izango da. Aseguruak kontratatzeke baliatuko dira arrisku mota honetarako aseguru-merkatu bereziko ohiko bideak.

Zenbateko aipatua ordaintzeari dagokionez, kontratistak igortzen duen lehen fakturari edo egiaztagirari kenduko zaio, agiri honetako 37. klausulan aurreikusitakoaren arabera.

30. KONTRATUAREN ARDURADUNA. ZUZENDARITZA PROFESIONALA. AGINDUEN LIBURUA

30.1 EEEK pertsona fisikoa edo juridikoa izendatu dezake –titulazio eta prestakuntza egokiak nahiz nahikoak dituen eta erakunde kontratatzailearekin lotura duena edo ez– kontratuko xedea osatzen duten zerbitzu guztien gauzatzearen arduradun izan dadin. Arduradunak zaindu beharko du kontratua gauzaten ari dela kontratuan ezarritakoari betez. Horrez gainera, arduradunak kontratistari helaraziko dizkio kontratazio-organoaren aginduak eta argibideak.

Hauek dira kontratuko arduradunari bereziki dagozkion eginbeharrak:

- Kontratazio-organoari proposatuko dizkio kontratistari ezarri beharreko zigorrak, betiere, kontratua ez bada bete kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.
- Kontratuko zatiko prestazioak emateko unean parte hartzea eta, hala badagokio, horiek jasotzea.
- Informazioa ematea, ondasun nahiz ekipamendu hornituak, horiek instalatzea eta martxan egoki jartzea kontratuan zehaztu baldintzak betez gauzatu izanari buruz.
- EEEri egitea kontratua gauzatzearekin lotura duen eta egoki deritzon zeinahi jakinarazpen.

Kontratuaren pertsona arduradunak eta haren laguntzaileak askatasuna izango dute zerbitzu kontratatua gauzaten den lekuetara sartzeko, betiere, kontratistak izendatzen duen pertsonak lagunduta.

EEEk izendatzea idatziz jakinaraziko dio enpresa kontratistari. Kontratua gauzatu bitartean izendatzean aldaketarik badago, aldaketa horiek ere idatziz jakinaraziko zaizkio enpresa kontratistari.



30.2 EEEK, horretarako propio izendatutako zuzendaritza profesionalaren bidez, kontratatutako obra behar bezala egiten ari den egiaztatzearen, ikuskatu ahal izango du obraren lekua, eta kontratistari aginduak eta argibideak emango dizkio obrako arduradunaren bidez.

Zuzendaritza profesionala (obraren zuzendaritza, obra gauzatzeko zuzendaritza eta obraren segurtasunaren koordinazioa barne hartzen dituena) EEEren zerbitzu teknikoek zuzenean egin dezakete edo hark kontratatutako teknikarien bitartez.

Kontratistaren mendeko obraren arduradunak EEEren oniritzia izan behar du, kontratua formalizatzen den unetik, eta kontratazio honetan eskatzen diren antzeko lanetan esperientzia egiaztatua izan behar du.

Kontratazio-organoak edonoiz eska dezake obraren arduraduna ordezkatzeko, edo kontratistaren eskariz, hura ordezkatzeko baimena ematea.

30.3 Enpresa kontratistak une oro eduki behar du eskura eta egoera onean “Agindu eta Bertaratzeko Liburua” haren bulegoan. Obren zuzendaritza profesionalaren eskura egongo da, eta hala badagokio, kontratuaren arduradunarena ere, eta obrak egiten diren bitartean, liburuan idatzi beharko dituzte bisitak, gorabeherak eta aginduak. Enpresa kontratistak, edo hark izendatutako duen pertsonaren bidez, aginduei dagokien jaso izanaren dokumentua sinatu beharko du.

Hartzearen ekitaldian “Agindu Liburua” aurkeztea eskatuko da, behar bezala beteta, eta ekitaldiaren ondoren EEEren eskura pasako da.

31. AZPIESTAZIO ELEKTRIKOA GAUZATU, HORNITU ETA INSTALATZEA

31.1. Azpiestazio elektriko hornitu eta instalatzea. Kontratua betez, kontratista beharturik dago azpiestazio elektriko hornitu eta instalatzera. Kontratistak aipatu egintza gauzatuko du kontratuan aurreikusi baldintzatan, baldintza teknikoen agirian zehazturiko ezaugarri teknikoen arabera eta eskaintzan proposatu duen instalazio-teknikaz baliatuz, betiere, Europar Batasunean eska daitezkeen segurtasun- eta kalitate-arauak betez.

Kontratistak, behin kontratua formalizaturik, gauzatu beharko ditu linea elektrikoen horniketa kontratatzekeo beharrezkoak diren jarduerak, entrega-epe zehaztuak gogoan harturik, hornitzea erabiltzeko moduan egon dadin kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak eskuratu bezain laster.

Ez da egongo hornidurak hartzeko ekitaldi formalik. Hori dela eta, kontratistak ez du eskubiderik izango kalte-ordainak jasotzeko guztiz instalatu aurretik linea elektrikoetan gerta daitezkeen kalteen, matxuren edo galerengatik, betiere, 28.2 klausulan kontratuaren eraginkortasuna eteteari buruz aurreikusi dena bazter utzita.

Behin egiaztaturik azpiestazio elektriko egoki instalatu dela, EEEK adostasunez hartuko du hornitzea, betiere, bazter utzi gabe egon daitezkeen akats edo okerrenatik kontratistaren erantzukizuna.

31.2. Entrega-gastuak. Azpiestazio elektriko entregatzeko eta instalatzeko tokira arte eramateko gastuak kontratistaren konturakoak izango dira.

31.3. Akatsak edo okerrak bermealdian. Bermealdian egiaztatzen bada azpiestazio elektriko hornituetan akats edo okerrak dagoela, EEEK eskubidea izango du kontratistari eskatzeko oker daudenak berriz jarri edo, nahikoa bada, horiek konpon ditzala. Horretarako, EEEK kontratuaren



arduraduna izendatu dezake, gaiaren gain ezagutza teknikoak dituen eta ebaluatuko duen ondasun hornituen egokitasuna eta horien funtzionamendu zuzena.

Bermealdiaren barruan joko balitz kontratistari, hornitzaileari edo fabrikatzaileari egotz dakizkiokeen akats edo oker hautemanen eraginez instalazio elektriko hornituak ez direla egokiak kontratuaren xederako, eta uste baldin bada okerrak zuzentzea edo berriz jartzea ez dela nahikoa izango kontratuaren xedea betetzeko, bermealdi aipatua amaitu aurretik EEEk ondasunei uko egin diezaieke eta kontratistaren kontura utzi. EEEk, horrenbestez, ez du ordaintzeko betebeharririk izango edo, hala badagokio, eskubidea izango du ordaindutakoa berreskuratzeko.

Bermealdia amaitu bada eta EEEk ez badu eragozpenik edo azpiestazio elektrikoan akats edo okerren salaketarik formalizatu, kontratistak ez du izango ondasun hornituen gaineko erantzukizunik.

31.4 Segurtasun- eta Osasun-plana lanean

31.4.1 Segurtasun- eta Osasun-plana lanean onartu aurretik ezin izango dira hasi lanak, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak xedatutakoa betez. eraikuntza lanetan segurtasun eta osasunari lotutako gutxieneko baldintzak edo xedapenak ezartzen dituen. Horretaz gain, indarrean dauden arabei jarraiki, kontratistak lan arriskuak prebenitzeko gaien inguruko betebeharrak kontuan hartzen dituela egiaztatu baino lehen ezin izango dira hasi lanak.

31.4.2 Indarrean dagoen legeria betetzeko xedez, aipatutako Segurtasun- eta Osasun-plan horretan neurri eta jarduera guztiak kontuan hartu beharko ditu kontratistak, eraikuntza zuzenaren arauen eta agiri hauetan zehazten diren baldintza eta eskakizunen arabera.

31.4.3 Kontratua gauzatzen ari den bitartean, segurtasunari eta osasunari lotutako xedapen administratibo guztiak bete beharko ditu kontratistak, eta EEEk ez du inolako erantzukizunik izango gai horretaz. Horretarako, kontratistak obran izango diren pertsona guztien segurtasuna zaintzeko behar diren neurriak eta programak eduki, ezarri eta ikuskatu beharko ditu, bai lan-jardunaren orduetan bai lan-jardunaren orduetatik kanpo. Era berean, segurtasun- eta osasun-planean finkatutako neurriak eta programak ere aplikarazi beharko ditu.

31.4.4 Kontratistak obra egiteko erabiliko dituen langileei dagokienez, 1627/1997 Errege Dekretuak xedatutakoa zorrotasunez bete beharko du. Horretarako, obrara behar bezala egokituko den segurtasun- eta osasun-plana proposatu beharko da, eta hala badagokio, onartu egingo da. Horrekin batera, lantokian edo obran gorabehera edo gertaera liburua izan beharko da, aipatutako 1627/1997 Errege Dekretuak eskatzen duen moduan.

31.4.5 Goraxeagoko klausulan (31.4.3) aipatzen den erantzukizun-salbuestea gorabehera, klausulan ezarritakoa ez betetzeagatik EEEri erantzukizun zibil eta administratiboren bat egotziko balitzaio, erantzukizuna kontratistak beregain hatu beharko du, kontratistak sinatutako aseguru-polizetan aseguratutako kapitalen kargura, eta hala badagokio, bermeen kargura edo obra-ziurtapenaren kenketaren bidez.

32. EPEAK BETETZEA KONTRATUKO ZERBITZUAK GAUZATZEAN

32.1. Lan-programa

EEEk kontratua gauzatzen hasteko beharrezkoak diren baimen edota lizentziak lortu dituela jakinarazten duen unetik zenbatzen hasita, hogeita hamar (30) egun igaro aurretik kontratistak lan-programa aurkeztu beharko du halaberharrez, zeinaren bidez garatuko duen eskaintzan aurkeztutako hura. Lan-programa horretan jaso beharko dira kontratuko xede diren jardura guztiak.



Lan-proiektua aurkeztu eta hamabost (15) egun igaro aurretik, EEEk erabakiko du aldaketak ezartzea edo zenbait agindu betearaztea, betiere, kontratuko klausulen kontrakoak ez badira. Edonola ere, lan-programak bat etorri behar du eskaintzan jasotako guztizko epearekin, bide kritikoarekin eta zatiko epeekin.

Behin EEEk onarturik, lan-programa kontratuari batuko zaio eta, ondorioz, kontratu-izaera izango du.

Lan-programa barra-diagramen bidez egin ahal izango da, eta kontratuko zerbitzuen gauzatzea behar bezain beste zati, kapitulu edo unitatetan zatitu ahal izango da ahalik eta ondoen planifikatzeko.

Edonola ere, lan-programak ondoko datu hauek eman beharko dira:

1. Kontratuko xede diren ondasun eta ekipamenduak entregatzeko gutxi gorabeherako epea.
2. Instalazioa prestatzeko lanak edo eragiketak.
3. Instalazioan erabiliko diren baliabide material nahiz pertsonalen azalpena. Zehaztu beharra dago batez besteko haien errendimendua.
4. Zenbatestea gauzatze-epeen egunak, bai prestatze-lanenak, baita instalazio-lanenak ere.
5. Proiektua osatzen duten unitateetako obra motaren arabera antolaketa edo ordenazioa, haien neurketak adieraziz.
6. Horniketaren xede den azpiestazio elektriko instalatzeari buruzko hilabeteko zenbatespena eta zenbatespen metatua, obretan edo prestakuntza eragiketetan oinarrituta, ekipo eta instalazioetan eta unitateko prezioak atalka edo obra unitateko.
7. Lanen diagrama.

32.2. Azpiestazio elektriko gauzatzea.

32.2.1 Azpiestazio elektriko entregatzeko epe zehaztuak betetze aldera, kontratistak azpiestazio elektriko eskuratzera derrigorturik dago lan-programan zehaztutako gauzatze-une garrantzitsuekin bat etorriz. Kontratistak aipatu betebeharra izango du, nahiz eta kontratua formalizatzeko egunean EEEk ez izan kontratuko xede den azpiegitura gauatzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak.

32.2.2 Kontratistak azpiestazio elektriko gauzatuko du agiri honetan, baldintza teknikoan agirian eta kontratistak berak aurkeztu lan-programan finkatutako epeen eta baldintzen arabera.

32.2.3 Kontratuak alde bakoitzari eskatzen dizkion baimenak, lizentziak eta abar lortzeko, kontratista eta EEE lankidetzan eta elkarri laguntza ematen ariko dira. Era horretan, alde biek informazio eguneratua izango dute obraren egoeraz eta baimenak, lizentziak eta gainerako dokumentuak eskuratzeko prozeduraz. Horretaz gain, behar diren idazki eta akordioak sinatuko dituzte eta beharrezkoa edo komenigarria denean, agintari eskumendunekin izango dituzten bileren berri emango diote elkarri.

32.2.4 Azkenik ez badira administrazioko baimen horiek guztiak lortzen eta kontratua suntsiarazi behar bada, kontratistak eskubidea izango du kontratuko zati gauzatuaren prezioa jasotzeko, agiri honetako 37. klausulan aurreikusi baldintzetan.

33. KONTRATUA GAUZATZEAREKIN LOTURA DUTEN BESTE KLAUSULA OROKOR BATZUK



33.1 Arriskua eta zoria: Ezinbesteko kasuetan izan ezik, kontratua gauzatuko da kontratistaren arrisku eta zorira, SPKLen 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

33.2 Kontratu-agiriak eta argibideak betetzeko beharra: Kontratua gauzatzeko zorrotasun handiz beteko dira agiria, proiektua, lan-programa eta kontratu-izaera duten gainerako agiri guztiak. Horrez gain, kontuan hartuko dira, baita ere, agiri horiek guztiak betearazteko edo interpretatzeko EEEko ordezkariak kontratuaren arduradunaren bidez enpresa kontratistari idatziz ematen dieten argibideak.

Nahiz eta kontratistak ez ezagutu kontratuko agiri erantsi itunduak, argibideak, agiriak edo EEEk onartutako zeinahi motatako arauak, horiek guztiak betetzeko betebeharra izango du.

33.3 EEEekin elkarlanean aritzea: Kontratistak EEEri lortu beharko dizkio, batere kosturik gehitu gabe, kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak, hala nola, argibideak emateko bileretara joatea, jendaurreko informazioa ematea eta abar.

33.4. Lanen, kalteen eta galerengatiko erantzukizuna eta aseguruak: Enpresa kontratatzailea ondoko hauen erantzule izango da: garatzen dituen lanen eta zerbitzuen kalitate teknikoarena; obra eta zerbitzu gauzatuen; eta proiektuak ezegoki idazteagatik gertatzen diren hutsegiteen, akatsen, metodo ezegokien edo ondorio okerren eraginez nahiz kontratua gauzatzearen bidez EEEk edo hirugarrenek pairatu behar dituzten ondorioena (SPKLen 281. artikulua). Kontratua modu partekatuan gauzatzen bada profesional edo enpresa bat baino gehiagorekin –aldi baterako enpresa-elkartearen bidez– guztiak erantzungo dute elkartasunez EEEren aurrean. Kontratista nagusiak zerbitzuen zati bat azpikontratisten bidez gauzatzen badu, kontratista nagusia izango da kontratuko xede diren zerbitzuak egoki gauzatzearen erantzule bakarra EEEren aurrean.

Kontratistak ordaindu behar ditu kontratua gauzatzeko egin behar diren eragiketen eraginez hirugarrenei sortzen zaizkien kalte eta galera guztiak. Kalte eta galera horiek izan badira EEEren agindu baten berehalako ondorio zuzen, EEE izango da horien erantzule, betiere, legeetan araututako mugen barruan.

Agiri honetan azaltzen diren lanak egiteko, kontratistak edo haren menpeko langileek eta kontratistek egin ditzaketen edozein ekintza eta akatsengatik ez die eskatuko EEEri, kontratuaren arduradunari, haren langileei, eragileei, ordezkariak, administratzaileei eta bazkideei inolako ardura, betebeharrak, galera, kostu, gastu edo antzekorik.

Enpresa esleipendunak derrigorrezko aseguruak izan beharko ditu eta, horrez gainera, ondoko hauek kontratatu eta mantenduko ditu bai eraikuntza-aldian bai bermealdian:

33.4.1 Aseguratze konplexuaren mekanismoak. EEEk aseguru horiek harpidetuko ditu, agiri honetako 29. klausulan aurreikusi irismen eta baldintzetan.

33.4.2 Beste aseguru batzuk, Kontratu honetan aipatzen diren lanak gauzatzeko, legeak eskatzen dituen kontratu guztiak izatea kontratistaren ardura izango da

33.5. Baliabide material eta pertsonalak: Kontratua gauzatzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du honako lan hau egiteko: azpiestazio elektrikoaren egitasmoa, eraikuntza, ezarpena eta abian jartzea, baldintza administratibo berezien agiri honetan eta baldintza tekniko bereziei buruzko agirian zehazten den moduan eta giltza eskua eran. Horrekin batera, kontratistak bere eskaintzan proposatuko duen instalazio teknika kontuan hartu beharko da; betiere, Europar Batasunean eskatzen diren segurtasun eta kalitate mailari erreparatua. Hori horrela, honako konpromiso hauek hartzen ditu kontratistak:



a) Kontratu honetan azaltzen diren lanak gauzatzeko behar diren material, ekipo eta instalazio guztiak hornitzeko konpromisoa hartzen du kontratistak, hark zuzenean edo azpikontratatu bidez.

Azpiestazio elektrikoa eraikitze erabiliko diren material, ekipo eta gailu guztiak, zeinak kontratistak EEEri emango dizkionak, agiri honetan, estandarretan eta kontratuko dokumentuetako baldintza teknikoetan ezartzen diren eskakizunen arabera diseinatu, eraiki, zerbitzuan jarri eta kontserbatuko dira. Ekipo, material eta osagai guztiek baldintza tekniko berezietan eskatzen diren ezaugarriak, kalitatea eta maila eduki behar dituzte. Horrekin batera, merkaturatzerakoan berriak eta lehen mailako kalitatedunak izango dira. Gainera, ekipo, material eta osagai guztiek ez dute inolako akatsik eta egokiak izango dira agiri honetan zehazten diren edo haren interpretazio logikotik ulertuko diren lanak egiteko.

Obra edo ekipoen eta osagaien instalazioa egiten eta eraikitzen hasi aurretik, material, ekipo eta gailuak obraren arduradunak edota zuzendaritza profesionalak berrikusi, aztertu eta onartu beharko ditu. Horretarako, kontratistak material bakoitzeko lagin egokiak aurkeztu beharko ditu, zuzendaritza profesionalak onartzeko.

Osagai handiak, entregatu baino lehen, fabrian berrikusi eta onartu ahal izango dira obraren arduraren edota zuzendaritza profesionalaren aldetik, eta haien funtzionamendu zuzena egiaztatze bideren bat eskatzearekin batera, probaren bat egiteko ere eska dezakete; hori guztia kontratistaren kontura izango litzateke. Fabrian egin daitezken proba eta egiaztapenetan parte hartze eskubidea izango du EEEk.

Hornituko diren material, ekipo eta osagai guztiak baztertu daitezke, baldin eta kontratuko dokumentuetako baldintza tekniko berezietan zehazten diren ezaugarriak betetzen ez badituzte, Hori gertatuko balitz, kontratistak eskubidea izango luke erreklamatzeko EEEren aurrean, eta horretarako hamar (10) eguneko epea izango luke, EEEk haren berri emanez idatziz helaraziko liokeen jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Horrelako egoera baten aurrean egonez gero, baztertutako material, ekipo eta instalazioen bidez egingo diren lanak edo obrak eraisteko agindu dezake EEEk, eta haren gastuak kontratistak ordaindu beharko ditu.

Kontratistak edo bere azpikontrastek hornituko dituzten material, ekipo eta instalazioen jatorri, ezaugarri eta kalitate egokien ardura edo erantzukizuna kontratistarena izango da. Horretaz gain, obrari aplikagarria izango zaizkion arauak eta legeria teknikoa betetzeaz arduratu beharko da kontratista.

b) Kontratistak derrigor jarri eta mantendu beharko ditu beharrezkoak diren ekipamendua, bitarteko osagarriak eta, bereziki, I. eranskinean aipatzen diren bitartekoak, kontratuan hitzartutako epeetan gauzatzea zuzena izan dadin. Horrez gain, bitarteko horiek guztiek izan beharko dute kontratua gauzatzeko pertsona arduradunen zerrendan jaso den dedikazioa.

Enpresako langileak enpresa kontratistaren mende egongo dira soilik, eta enpresa kontratistak soilik izango ditu enplegatzaile den aldetik dagozkion eskubideak eta betebeharrak.

Kontratua indarrean egon bitartean, kontratuari atxikitako langileek –kontratuan ez beste ezertan ariko direnak– ezin izango dute beste lan batean parte hartu. Era berean, enpresa kontratistak ezin izango ditu eskaintzan ezarritako eskumeneko langileak ordezkatu, baldin eta EEEk horretarako baimen zehatzik eman ez badu.

c) Azpiestazioa egiteko erabiliko diren materialak edota hornigaiak entregatu eta garraiatzeko gastuak, kokatuko diren gunek zehatzera eramateraino barne, kontratistak ordaindu beharko ditu.



33.6 Saiakuntzak, analisiak eta probak. Baldintza teknikoan agirian aurreikusi saiakuntzak eta analisiak bazter utzita, kontratuko arduradunak agindu dezake kontratistaren kargura egitea materialen, ekipamenduen eta instalazioen saiakuntzak eta analisiak. Eska dezake, baita ere, kasuan kasu egoki gerta daitezkeen txosten zehatzak biltzea. Aipatu gastuak kontratistaren konturakoak izango dira, gehienez ere, kontratuaren aurrekontu osoaren %1ko zenbatekora arte. Edonola ere, muga aipatua ez dute izango eta guztiz kontratistaren konturakoak izango dira, kalitatean nahiz kontratua gauzatzean gertatzen diren akatsen ondorioz gauzatu behar diren kontroletatik eratorzen diren gastuak.

33.7 Seinaleztapena: Enpresa kontratista derrigorturik dago bere kontura jartzera linea elektrikoa instalatzeko lanak gauzatu behar diren itsaso-eremua zehazteko beharrezkoak diren seinaleak – obretarako lehorreko sarbidekoak, lanak gauzatzen ari diren eremuko zirkulazioa arautzekoak, eta lanen martxagatik arriskutsuak izan daitezkeen puntuak seinalatzeko beharrezkoak diren seinaleak– bai obrak gauzatzen diren eremuan, eremu horien mugan eta inguruetan. Kontratistak, halaber, bete beharko ditu instalatu seinaleen seinale osagarriak jartzeari edo instalatu seinaleak aldatzeari buruzko aginduak.

Era berean, linea elektrikoa lurperatzeko obrak hasten direnetik, enpresa adjudikatzaileak –aipatu obrei buruz ohartarazteko jartzen dituen seinaleetan– obrak identifikatzeko kartelak jarri beharko ditu, EEE erakunde kontratatzailea dela adierazteko.

33.8 Kontserbazioa eta zaintza.- Enpresa kontratista derrigorturik dago azpiestazio elektrikoari lotutako obrak zaintzera. Kontratua hartu arte, enpresa esleipenduna arduratuko da instalazioak, obrak eta kontratuko xede diren gainerako ondasunak zaintzeaz.

33.9 Arauak eta arautegiak. Agiri honetako lanak eta jarduera guztiak gauzatzeko aplikagarriak izan dakizkikeen arauak ea arautegiak bete eta betearazi beharko ditu kontratistak une orotan. Gainera, kontratu honen xedea den azpiestazioa era egokian entregatuko du, hau da, funtzionamenduan jartzen denean, aipatutako arau eta arautegiak bete beharko ditu.

Adierazitako arautegia betetzeko jarri behar diren ekipoen instalazioari lotutako kostua kontratistaren kontura izango da. Era berean, arautegia ez betetzeagatik jarri daitezkeen isunak eta zigorrak hark ordaindu beharko ditu, eta ezar daitezkeen betebeharrak guztiak bete eta betearaziko ditu (batez ere, berrezartze, berritze eta kalte-ordainari lotutakoak). Nolanahi ere, gerta litezkeen ez betetze horiengatik EEEk ez du inolako erantzukizunik izango.

Aurrekoaz gain, kontratua sinatu ondoren, bete beharreko kode eta arauak aldatu edota berriak onartzen badira, egin behar diren egokitzapen eta aldaketa teknikoak berme egokiekkin eta prezio lehiakorrean egingo ditu kontratistak. Aldaketa edo egokitzapen horiek EEEekin eta zuzendaritza profesionalarekin adostu beharko ditu. Edozein kasutan, aldaketa eta berrikuspen horiek honako egoera hauek gertatzen direnean eskatuko dira: (i) kontratua sinatu zenean, aldaketak ez ziren oso aurreikusgarriak; (ii) aldaketa horiek obraren diseinuan eta gauzatzean eragin handia dute; (iii) kontratistak EEEri aldaketaren berri ematen dio eta aldaketarako proposamena egiten dio, aipatutako aldaketa xedatzen duen araua indarrean sartu ondorengo hurrengo hiru (3) hilabeteren barruan. Lan ordu kopurua murrizteak ez du ekarriko inolako aldaketarik kontratu honen araudiari dagokionez. Hala, obrak era egokian egiteko eta kontratuan adostutako prezio eta epean gauzatzeko, kontratistak behar diren giza baliabideak bideratu eta erabili behar ditu.

33.10. Kontratistaren betebeharrak lan, gizarte-segurantza, eta laneko segurtasuna nahiz osasunari buruzko auzietan.



33.10.1 Kontratatistak bete beharko ditu lan- eta segurtasun-arloan indarrean diren xedapen administratiboak obra egiten duen bitartean, eta ez betetze horretatik erator daitekeen erantzukizunik ez du bere gain hartuko EEEd. Horretarako, obran egongo diren pertsona guztien segurtasuna bermatzeari begira, beharrezkoak diren neurri eta programa guztiak hartu, garatu eta berrikusi edo ikuskatu beharko ditu, bai lan jardunetan egoten direnean, bai lan jardunetako orduetatik kanpo egoten direnean; betiere, segurtasun- eta osasun-planean ezarritako neurriak eta programak kontuan hartuz.

Obra egiten ariko diren langileei dagokienez, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko ditu kontratatistak, eraikuntzako obretan segurtasun eta osasunari lotutako xedapenez diharduena. Dekretuak dioena betetzeko, dagokion segurtasun- eta osasun-plana proposatu beharko du, eta egokitzat jotzen bada, onartzeko. Horrekin batera, Errege Dekretuak eskatzen duen bezala, gorabeheren liburua eduki behar du obran.

33.10.2 Kontratatistaren erantzukizunaren mesedetan izan gabe ere, kontratuaren arduradunak eta zuzendaritza profesionalak kontratatistaren edo bere azpikontratisten zein hornitzaileen biltegi eta tailerretan pieza eta ekipoak ikuskatzeko eskubidea izango dute. Horretaz gain, edonoiz lantokiak ikuskatzeko eskubidea izango dute, horietan segurtasunari lotutako arauak betetzen eta egokitzen direla egiaztatzearen, eta kontratatistari zenbait neurri hartzeko eska diezaiokete arrazoizko muga batzuen barruan, segurtasuna hobetzeko. Kontratatistak neurri horiek beteko ez balitu, lanak bertan behera uzteko eska dezakete; betiere, bertan behera uzteko nahiko arrazoi tarteko badira. Obrak bertan behera utziko balira, gauzatzeko epea ez litzateke luzatuko.

33.10.3 Goraxeago adierazitakoa kontuan izanik, 30.10.1 klausulan zehaztuak EEEdi erantzukizun zibil edo administratiborik ekarriko balio, klausulan ezarritakoa ez betetzeagatik, erantzukizun hori kontratatistari egotz diezaioke, kontratatistak sinatutako aseguru-polizetan aseguratutako kapitalen kontura, eta hala badagokio, bermeez baliatuta edo obra-ziurtapenari lotutako zenbatekotik kenduta.

33.11 Garbiketa.

Kontratatistak obra garbi edukiko du, eta obra gauzatzearen ondorioz sor litezkeen material erabiliak, zarama, zaborra edo antzeko hondakinak bilduko ditu modu egokian. Horretarako, kontratatistak aldi behin beharrezkoak diren garbiketa eta biltegitratze lanak egingo ditu, tresnak, materialak, makinak eta ekipoak era egokian antolatuz. Behin obrak amaitutakoan, baztertutako material, makina eta gainerako gailuen desmuntatze, eraiste eta obratik kanpo eramateko garraioa egiteko betebeharra izango du kontratatistak, obraren ingurua horrelako materialetik libre eta garbi geratzeko xedez. Kontratatistak garbiketa eta biltegitratze lanak egingo ez balitu, EEEd egin ditzake kontratatistaren kargura, eta hala badagokio, hitzartutako bermeez eta egindako atxikipenez baliatuta.

33.12 Kontserbazioa

Amaitutako obren zatiak edo unitateak nahiz obraren inguruen jartzeko edo muntatzeko leudeken materialak, ekipoak eta instalazioak behar bezala babestu, kontserbatu eta mantentzeko betebeharra izango du kontratatistak, eta ezin izango dira kendu edo erretiratu EEEden idatzizko baimena eduki gabe. Beste kontratista independente batzuk egongo balira, horiek egingo lituzketen lanen babesa eta kontserbazioaren ardura kontratatistarena izango litzateke; betiere, lan horiek agiri honetako obrei edo kontratatistaren lanei eragingo baliote.

Aurreko paragrafoan mantentze eta kontserbazioari lotutako betebeharrak edo ardurak kontratatistarenak izango dira obra hartzea egin arte. Funtsean, kontratatistak mantentze eta kontserbazio lan hauek egin behar ditu: obrarekin zerikusia duten materialak, ekipoak eta instalazioak babestu, berriro jarri, ordezkatu eta konpontzea; betiere, horretarako EEEd eman ditzakeen aginduak eta jarraibideak kontuan hartuz.



33.13 Enpresak azpikontratatzeko badu kontratuaren gauzatzearen zati bat, azpikontratatuari eskatu beharko dizkie aurreko betebeharren egiaztatzeak eta EEERi eman.

33.14 Lanean arituko diren langileei edo zer eratako istripu edo kaltea gertatuz gero, esleipendunak indarrean dauden arauak xedatutakoa beteko du bere ardurapean; EEER, aldiz, ez du horretaz erantzun beharrik.

34. GAUZATZE-BALDINTZA BEREZIAK

34.1. Gauzatze-baldintza linguistikoak.

34.1.1 Errotuluak, oharrazpenak, seinaleak eta izaera orokorreko jakinarazpenak euskaraz nahiz gaztelaniaz egongo dira.

34.1.2 Zenbait kontratu gauzatzeko hirugarrenekin edo herritarrekin harremanean egon beharra dago. Horrelakoetan, erabiltzaileak edo hirugarrenek aukeratu du zer hizkuntzatan komunikatuko diren –ahoz nahiz idatziz– kontratua gauzatzeko ardura duen enpresa eta kontratua gauzatzeko aldera harremanean egon behar duen erabiltzaileak edo pertsonak. Ez bada espresuki adierazi zer hizkuntzatan izan behar den komunikazioa, esleipendunak pertsona fisiko edo juridikoei egiten dizkien jakinarazpenak –fakturak eta trafikoko beste agiri batzuk barne– bi hizkuntza ofizialetan egongo dira. Herritarrek, edonola ere, zehazki unetan bete dezake hizkuntza aukeratzeko bere eskubidea eta hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea eskatu.

34.1.3 Kontratua dela-eta EEERi zuzendu behar zaionean, eskuarki euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeko aldera, hauex adierazi nahi da «eskuarki euskara» erabiltzea esaten dugunean:

- a) Ahozko komunikazioan, euskaraz dakiten eta kontratua gauzatzerekin zerikusia duen zerbaitegatik EEERi zuzentzen zaizkion langileak, hasiera batean, euskaraz mintzatuko dira. EEER euskaraz mintzatzeko bazea kontratua gauzatzeko langile adskribatuari eta azken horiek ez badute euskaraz mintzatu ahal izateko nahikoa maila, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehalako prestatu beharko ditu euskaraz aritzeko gai diren langileak edo bitartekoak, kontratua gauzatzerean ondorioz EEERekin izan beharreko harremana euskaraz izan dadin.
- b) Idatzizko jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara aukeratu badute.

34.2 Gizarte- eta lan-txertaketaren aldeko gauzatzeko baldintza bereziak.

34.2.1 Kontratua esleitzeko irizpide izateaz gainera, kontratistak konpromisoa hartzen du zerbitzu kontratatua gauzatzeko beharrezkoak diren langile guztien –enpresa kontratistarenak eta azpikontratatuenak barne– gutxienez %20 izatea lanpostu bat lortzeko zailtasun bereziak dituzten langabetuak. Kopuru hori kalkulatzeko, obra egiteko behar diren langile guztien arabera kalkulatu da.

34.2.2 Hauek hartzen dira lanpostu bat lortzeko zailtasun berezia duten pertsonatzat:

- a) Oinarrizko errenta jaso eta laneratze-hitzarmena izenpetu duten pertsonak (ezaugarri horiek egiaztaturik egon behar dute dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuaren egiaztatzearen bidez, zeinak erakusten duen pertsona aipatua programa aipatuaren onuradun dela).
- b) 30 urtetik gorako emakumeak –zehazki lan-kontratu hau lehendabizikoa den– eta bost urtez langabezia egon ondoren kontratatzen diren emakumeak (azken hori egiaztatu beharra dago lan-biziaren txostenaren bidez).
- c) Pertsona minusbaliatuak, %33ko edo hortik gorako minusbaliotasuna aintzatetsia dutenak (ezaugarri hori egiaztatu beharra dago erakunde ofizial eskumendunak igorritako minusbaliotasun-egiaztatzearen bidez).



- d) Etxeko indarkeriaren biktimak. Etxeko indarkeriaren biktimatzat hartuko dira indarkeria fisikoaren edo psikikoa pairatu dutenak, dela ezkontidearen eskutik, dela ezkontidearen antzeko afektu-harremanagatik hari lotua egon den pertsonaren eskutik, dela bere aurrekoen, ondorengoen edo neba-arreben eskutik, betiere egintza aipatuak egiaztatu badira biktimaren aldeko zigortze-epaiaren edo babeste-aginduaren bidez edo, salbuesenez, fiskaltzaren txostenaren bidez, zeinak adierazten duen babeste-agindua izapidetu bitartean badirela arrastoak erakusten dutenak salatzailea aipatu indarkeriaren biktima dela.
- e) Gaixotasun mentalen bat duten pertsonak (medikuaren txostenaren bidez egiaztatu beharrekoa).
- f) Guraso bakarreko familia bateko aita edo ama, betiere, hiru hilabetez gutxienez langabezian inskribaturik egon badira. Horrenbestez, guraso bakarreko aita edo ama langabetutzat hartuko dira bere kargura soldatapeko jarduerarik gauzatzen ez duen edo duten ondorengo bat edo bat baino gehiago dituen pertsona (aipatu inguruabarra egiaztatzeko aurkeztu behar dira bizikidetz-egiaztagiria, familia-liburuaren kopia, zinpeko aitorpena –zeinean adierazten duen soldatapeko jarduerarik gauzatzen ez duen edo duten ondorengo bat edo bat baino gehiago bere kargura duela edo dituela– eta dagokion Enpleguaren Zerbitzu Publiko autonomiko edo estatalak igorritako egiaztagiria, pertsona aipatua langabetu moduan erregistraturik egon den denbora-tarteei buruzkoa).
- g) Batasunetik kanpoko immigranteak, langabetu moduan erregistraturik egon direnak, gutxienez, 6 hilabetez etenik gabe (aipatu inguruabarra egiaztatzeko aurkeztu beharra dago dagokion Enpleguaren Zerbitzu Publiko autonomiko edo estatalak igorritako egiaztagiria, pertsona aipatua langabetu moduan erregistraturik egon den epealdiei buruzkoa).
- h) Langabezian luzaro egondako pertsonak, dagokion zerbitzu publikoan etenik gabe erregistraturik egon direnak lan-eskatzaile moduan, gutxienez, 12 hilabetez (aipatu inguruabarra egiaztatzeko aurkeztu beharra dago dagokion Enplegu Zerbitzu Publiko autonomiko edo estatala igorritako egiaztagiria, erakusten dituen pertsona aipatua langabetu moduan erregistraturik egon den epealdiak).
- i) 45 urtetik gorako pertsonak, langabetu moduan erregistraturik egon direnak, gutxienez, 3 hilabetez etenik gabe (aipatu inguruabarra egiaztatzeko aurkeztu beharra dago dagokion Enpleguaren Zerbitzu Publiko autonomiko edo estatalak igorritako egiaztagiria, pertsona aipatua langabetu moduan erregistraturik egon den epealdiei buruzkoa).
- j) 16 eta 30 urte bitarteko gazteak, langabetu moduan erregistraturik egon direnak, gutxienez, 5 eta 12 hilabete bitartean gabe (aipatu inguruabarra egiaztatzeko aurkeztu beharra dago dagokion Enpleguaren Zerbitzu Publiko autonomiko edo estatalak igorritako egiaztagiria, pertsona aipatua langabetu moduan erregistraturik egon den epealdiei buruzkoa).
- k) Adingabeak babesteko erakundeetatik datozen pertsonak, betiere, pertsona horiek laneratzeko prozesuari ekiten bazaio erakundetik atera eta hamabi hilabete igaro aurretik (inguruabar hori egiaztatu beharko da dagokion erakunde-egiaztagiriaren bidez).
- l) Toxikomano ohiak (alkoholiko ohiak eta drogazale ohiak). Toxikomano ohizat hartuko dira dagokion talde terapeutikoaren iritziz desintoxikazio nahiz mendekotasuna gainditzeko faseak gainditu dituzten eta etenik gabe 6 hilabete baino gehiagoz tratamenduan diren pertsonak (aipatu inguruabarra egiaztatu beharra dago dagokion Osasun Etxearen egiaztagiriaren bidez).
- m) Ezein motatako lan kontraturik ez duten espetxeratuek, zeinen espetxe-erregimenak aukera ematen dien lanpostu bat izateko; eta langabetu moduan erregistraturik dauden preso ohiak, betiere, azken horiek kontratatzen badira askatu eta 12 hilabete igaro aurretik (aipatu inguruabarra egiaztatu beharra dago dagokion erakunde-egiaztagiriaren bidez).



- n) Eskatzen duen eta, oinarrizko gizarte-zerbitzuen iritziz, laguntzaren edo jarduera zehatzaren beharra duena lan-munduan txertatzeko (aipatu inguruabarra egiaztatu beharra dago oinarrizko gizarte-zerbitzuen agiriaren bidez).
- o) Ekintza terroristen edo banda nahiz talde armatuetako kide diren eta herritarren bakea nahiz segurtasuna larri asaldatzea xede duten pertsonen indarkeria jasaten duten edo jasan izan duten pertsonak. Talde horren barruan sartuko dira, baita ere, xede aipatua duten talde edo bandatan formalki integraturik egon ez arren haien asmo bera duten pertsona arduradunak.

Ez bada posible izan kontratua gauzatzeko erabiliko diren langileen %20 izatea enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak, ezintasun hori onartuko da enplegu-zerbitzu publikoek edo oinarrizko gizarte-zerbitzuek ezin izan badute lan-eskaintza aurkeztua ase edo, bestela ere, produkzio-, antolakuntza-, teknika- edota ekonomia-kontuengatik. Arrazoi horiek guztiak behar bezala egiaztatu behar dira. Kasu horietan –betiere, kontratuko xede diren zerbitzuen tipologiarekin bat badator– enpresa esleipendunak azpikontratatu beharko du, gutxienez, kontratuko zenbatekoaren %5 2273/1985 Errege Dekretuan ageri den Enplegu Zentro Berezien Erregistroan erregistratutako enpresekin edo, bestela ere, abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuak araututako Txertatze Enpresen Erregistroan erregistratutako enpresekin. Ondorio horietarako, enpresa derrigortuek eska diezaiokete Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzaren Sailari erregistro aipatuetan izena emandako enpresen zerrenda.

34.3. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako gauzatzeko baldintza bereziak.

34.3.1 Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontrastek bermatuko dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna tratuan, lana lortzeko orduan, lanbide-sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, suntsipenean, ordainketetan, kalitatean, lan-egonkortasunean, iraupenean eta lanaldiaren antolamenduan. Era beran, kontratua gauzatu bitartean enpresa kontratistak edo azpikontrastek izango dituzte kontratua gauzatzeari atxikitako pertsonen bizitza pertsonalaren, familiako bizitzaren eta laneko bizitzaren arteko bateratzea ahalbidetzeko neurriak.

34.3.2 Era berean, bermatuko da 10 langiletik gorako enpresa kontratistek edo azpikontrastek hartuko dituztela sexu-jazarpena eta kontratua gauzatzeari adskribatutako langileekin duten harremanean sexu-arrazoiengatik jazarpena prebenitzeko neurriak, esate baterako, jardunbide egokien kodeak egitea eta hedatzea, trebakuntza-jarduerak edo informazio-kanpainak egitea, edo prozedura zehatzak ezartzea jazarpenak prebenitzeko eta jazarpena jasan dutenek egin ditzaketen erreklamazio edo salaketak bideratzeko.

34.3.3 Kontratua gauzatzeko langile gehiago kontratatu behar badira eta enpresa kontratista edo azpikontrastako langileen artean desoreka baldin badago emakumeen eta gizonen artean, kontratua gauzatzeko –eta gauzatzeko epe osoan barrena– emakume bat kontratatu beharko du edo, gutxienez, aldi baterako kontratua duen emakume bati kontratu mugagabea egin. Langileen artean desoreka dagoela joko da emakume baldin badira langile guztien %40 baino gutxiago.

34.4 Enpleguaren kalitatea eta oinarrizko lan-eskubideak bermatzeko gauzatzeko baldintza bereziak.

34.4.1 Enpresa esleipendunak zaindu behar du kontratua gauzatzeko adskribatzen diren langileen gutxienez % 30 mugagabe izatea. Aipatu betebeharra ez da eskatuko enpresako langile guztietatik % 80 baino gehiagok kontratu mugagabea badute.

34.4.2 Ehuneko kalkulatuko da kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren langileen guztizko kopurua hartuko da oinarri, guztizko horren barruan sartzen direlarik kontratua gauzatzeko enpresa azpikontrastek esleitu dituzten langileen kopurua.



34.4.3 Era berean, enpresa esleipendunak kontratua gauzatzean bermatu beharko du produkzio-katean barrena zaintzen direla oinarrizko lan-eskubideak. Horretarako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenak betetzea eskatuko du, besteak beste, sindikatu-askatasuna, taldeko negoziazioa, behartutako lanak edo derrigorrezko lanak kentzea, arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, arbaso nazional edo jatorri sozialarengatik enplegu- eta lanbide-bazterketak ezabatzea eta haurren lana abolitzea.

34.5 Laneko segurtasunaren eta osasunaren aldeko gauzatze-baldintza bereziak.

Esleipendunak betebeharrak hartuko ditu enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren kargura:

- a) Izatea –prebentzio-planarekin bat etorriz– zuzendaritzako funtzioak dituzten pertsonak eta beharrezko prestakuntza jaso dutenak laneko arriskuen prebentzioa barneratzeko haiek gauzatutako jarduera eta hartutako erabakietan.
- b) Obran aldizkako ikuskaritza-prozedura izatea, prebentzio-antolaketa bidez, prebentzio planaren egiaztapen espezifikoaren prozeduran ezarri jarraibideen arabera. Prozedura horretan sartu beharko dira Arriskuen Ebaluazioan / Segurtasun- eta Osasun-planean aurrez ikusitako babes kolektiborako neurrien aldizkako egiaztapena eta NBEren erabilera eraginkorra.
- c) Obra bakoitzeko izendatzea segurtasunaren eta osasunaren arduradun izango den enpresako pertsona, prebentzioan prestakuntza berezia duena eta laneko arriskuak prebenitzeko plana kudeatuko duena.
- d) Koordinazioa sustatzea, segurtasun-arloko koordinatzailearen (halakorik izendatzea egoki ez bada, zuzendaritza fakultatiboaren), enpresak izendatutako segurtasun- eta osasun-arduradunaren eta langileek aukeratutako prebentzio-ordezkararen artean.
- e) Kontratua gauzatzean langile immigranteek parte hartzen badute, esleipendunak izan beharko ditu, prebentzio-sistema egokia bermatze aldera, komunikazio eraginkorra ahalbidetzen duten prozedurak.

35. KONFIDENTZIALTASUNA. DATU PERTSONALEN ERABILERA

35.1 Konfidentzialtasuna. Kontratua gauzatzean enpresa kontratistak eskura duen informazio guztia isilpekoa izango da. Kontratistak eta azken horrek kontratua gauzatzearen arduradun izendatu duen pertsonak ezin dute beren mesederako erabili. Ezin diote, ezta ere, hirugarren pertsonari eman lan kontratatuei buruzko datuak edo ezein informazioa ez eta gauzatzearen bidez eskuratzen duten informazioa, betiere, EEEren idatzizko baimenik eduki ezean. Horrenbestez, kontratistak eta arduradun aipatuak derrigorturik daude haien esku dauden bitarteko guztiak jartzera zaintzeko lan gauzatuaren bidez lortutako informazioaren eta emaitzek konfidentzialtasuna. Ondorio horietarako, aplikagarria izango da SPKLen 124.2 artikuluan jasotakoa.

Edonola ere, datu pertsonalak lantzen ez diren lanak gauzaten direnean, enpresak eta enpresako langileek debekaturik dute datu pertsonalak eskuratzea. Are gehiago, zerbitzua eskaintzearen ondorioz langileek ezagutu dituzten datuak isilpean gordetzeko betebeharrak dute (Datu Pertsonalak Babesteko Legea garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuko 83.2 artikulua).

35.2 Datu pertsonalen erabilera. Datu pertsonalen erabileratzat honako jarduera hauek hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute.

Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako araua hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko ditu datuak kontratistak.



2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiekin eraturako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistartzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
 - a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipatutako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
 - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoa, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.
 - c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatuko ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeko aukerarik ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzeke egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.
6. Kontratua indarrean egongo den bitartean, EEEk kontrolak egiteko eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzeke.

36. KONTRATUA GAZATZEAN AKATSAK, OKERRAK, HUTSEGITEAK DITUZTEN LAN EDO GAIZKI GAUZATUTAKO LANETATIK KONTRATISTAREN ARDURA

Akatsak, hutsegiteak eta okerrak lanetan edo gaizki egindakoak. Enpresa kontratista izango da lan kontratatuak egoki gauzatzearen lan horietan egon litezkeen akatsen erantzule. EEEren ordezkariak gauzatu bitartean lan horiek aztertu edo aintzat hartu izanak edo zatiko egiaztatzeetan, balioespenetan edo ziurtatzeetan onartu izanak ez du kontratista aipatutakoaz salbuetsiko eta ez dio, ezta ere, inolako eskubiderik emango. Lan akastun edo gaizki egindakoa baldin bada EEEk berak emandako agindu baten ondorio zuzen eta berehalakoa, enpresa kontratistak ez du erantzukizunik izango.

Bermealdian agerikoa izango balitz akatsak, okerrak, hutsegiteak edo zeinahi lan edo ekipamendu akastun edo gaizki gauzatu dela, kontratistak izango du azken horiek berriz jartzeko edo, hala badagokio, konpontzeko betebeharra. Edonola ere, kontratua ez da behin betikoz hartuko akats hautemanak zuzendu, ordezkatu edo konpondu arte.



Kontratistak izango du akastun hornidurak edo ekipamenduak ordezkatzeko betebeharra, baita azpiestazio elektrikoa nahiz gainerako ekipamendu teknikoak instalatzean gertatu diren akatsak, okerrak edo hutsegiteak konpontzeko ere. Kontratistak uko egingo balio aipatu okerrak zuzentzeari, EEEk eskumena du hirugarren bat kontratatzeke aipatu zuzenketak egin ditzan, eta kontratistak ordaindu beharko ditu gauzatze-kostuak.

Kontratua akatsekin gauzatzeagatik zigorrei dagokienez, agiri honetako dagokion klausula horri buruz ezartzen dena beteko da.

Obrak gauzatzean hirugarrenei egindako kalteak. Kontratistaren kontura izango dira honako kalte hauek: haren kalteak; EEEri, kontratuaren arduradunari, zuzendaritza profesionalari edo hirugarrenei egindako kalteak; EEEk edo haren izenean egindakoak; kontratuan azaltzen diren lanak gauzatzeko, jartzeke edo muntatzeke leudekeen material, ekipo eta instalazioei eragindako kalteak, edo lan horiek ez gauzatzeagatik eragindakoak; materialak jartzeko, makinak funtzionamenduan jartzeko edo kentzeko eta azpiestazioari lotutako obren programaren epeak ez betetzeagatik eragin daitezkeen kalteak; EEErentzat edo EEEk berak egin ditzakeen obrek eta instalazioen funtzionamenduak sor litezken kalteak; eta, oro har, obrak gauzatzean kontratistak edo bere menpeko langileek egin ditzaketen edozein jardueraren hutsegite eta akatsen kalteak.

Kode Zibilaren 1.596. artikuluan xedatzen denari jarraiki, obra egiteari begira, kontratistak hartu edo erabiliko dituen langileek eta erakundeek eragin ditzaketen kalteen erantzukizuna kontratistarena izango da; edozein dela ere langile horien kategoria edo figura juridikoa (soldatapekoak, teknikariak, azpikontratistak edo beste figura juridiko bat).

37. KONTRATISTARI ORDAINTZEA

37.1. Kontratistak eskubidea du benetan burutu dituen hornidurak eta lanak ordain dakizkion, eta ordaindu ere, hitzartutako prezioetan ordain dakizkion, kontratuari, onartutako aldaketei eta Kontratuko arduradunak edo EEEk idatziz emandako aginduei jarraituz.

Kontratistak eskubidea izango du kontratuaren ordainketa zatika jasotzeko, hain zuzen ere, bere lan-programan zehazturiko gauzatze-mugarrietan mugarri bakoitzarentzat zehazturiko kostua jasotzeko eskubidea du.

37.1.1 Kontratistak, lanak hasi aurretik, faktura bat egingo du, zeinean jasoko duen mugarri bakoitzeko lanen kostua, hurrengo hilabetekoari dagokionez.. Behin faktura jasota, EEEk oniritzia emango du hamabost (15) asteguneko epean. EEEk faktura igorriaren gain eragozpenik edo oharrik badu, kontratista jakinaren gainean jarriko du hamar (10) asteguneko epean, egon daitezkeen akatsak zuzen ditzan. Behin faktura onarturik, EEEk hogeita hamar (30) eguneko epea izango du hura ordaintzeko.

Faktura partzialengatik egindako ordainketak kontu oneko ordainketatzat hartuko dira, eta azken likidazioan sor daitezkeen zuzenketen eta aldaketen menpe egongo dira; ondorioz, inola ere ez da pentsatu ordaintze horrek berekin dakarrela obra ordainduak onartu eta hartzen direnik.

37.1.2 Azpiestazioa egiteko fasean, aipatutako ordainketa partzialak hileroko obra-egiaztapenen bidez egingo dira. Horiek zuzendaritza profesionalak emango ditu, lanak amaitu eta gero, eta hurrengo hileko mugarri bakoitzari dagokionez.

Behin faktura jasota, EEEk oniritzia emango du hamabost (15) asteguneko epean.

Obra-ziurtapenen batek EEEren oniritzia jasoko ez balu, erabatekoa edo aldeztu, kontratistari jakinaraziko dio hamar (10) eguneko epean. Era berean, lehendik EEEren oniritzia duen obra-



ziurtapenen bat berriro aztertzeke edo desadostasuna adierazteko 8erabatekoa edo aldez) eskubidea izango du EEEk, hori jaulkitzeko dataren ondoren, akats, oker, kalte eta halakoren bat ikusiz gero. Horren ondorioz, obra-ziurtapen bati edo EEEri kalte edo diru-galerarik eragin ahal badio. Kontratatik bertan behera uzteko kausa edo akatsa konpondu arte, EEEk kenduko du hurrengo ziurtapenetik dagokion zenbatekoa. Ziurtapenak oniritzia jaso ondoren, EEEk hogeita hamar (30) eguneko epea izango du ordaintzeko.

Hileroko ziurtapenei dagozkien ordainketak kontura egindako ordainketatzat joko dira, azken ordainketan egingo diren aldaketa eta zuzenketei lotuak, eta ez du ekarriko, inola ere, barne hartzen dituzten lanak eta hartzea ontzat ematea, besterik gabe.

37.2 Oro har, ezin izango da fakturarik igorri eta, ondorioz, ordainketarik egin betetzen ez diren bitartean kontratua formalizatzeari buruz, segurtasun- eta osasun-planari buruz, lan-programari buruz, nahiz azpiegitura gauzatzen deneko tokiak seinaleztatzeari buruz agiri honetan ageri diren klausuletan ezarri baldintzak.

37.3 Enpresa kontratatik, halaber, eskubidea izango du –aldez aurretik idatziz eskatuz gero– konturako ordainketak jasotzeko kontratua prestatzeko eragiketa gauzatuengatik, gehienez ere, kontratuko zenbatekoaren 100eko 15. Kasu horretan, ordainketa aipatuak bermeen bidez aseguratuko beharko dira.

37.4 EEE hirurogei (60) egun baino gehiago atzeratzen bada ordainketa egiteko –dela hileko egiaztagiria, dela faktura partzialak, dela kontratuaren azken likidazioaren emaitzaren ordainketa egiteko– epe aipatua bete ondoren, enpresa kontratatik ordaindu beharko dizkio atzerapenarengatik interesak eta kobrantza kostuengatik kalte-ordaina eman, betiere, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren kontra borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusi baldintzetan.

38. ATZERAPENENGATIK ETA KONTRATUKO BETEBEHARRAK EGOKI EZ BETETZEAGATIKO ZIGORRAK

EEEk enpresa kontratatik zigorrek jar diezazkioke, jarraian adierazi hausteengatik eta zehaztu zenbatekoetan:

- a) Kontratuko xede diren zerbitzuak gauzatzeko guztizko epeak edo epe partzialak betetzean berandutzeengatik.
- b) Zerbitzuak egoki ez betetzeengatik, baliabide materialak eta pertsonalak adskribatzeko konpromisoa egoki ez betetzeengatik, eta hizkuntza-baldintzak edo gauzatzearen bestelako baldintza bereziak egoki ez betetzeengatik.
- c) Eskaintzak balioesteko irizpide moduan hartu diren alderdien gain eragina duten ez betetzeengatik edo betetze ezegokiengatik.
- d) Azpikontratuzko buruzko betebeharrak, baldintzak eta gainerako eskakizunak hausteengatik.
- e) Laneko segurtasun- eta osasun-plana aurkezteko epea bete ez izanagatik.

Klausula honetan jasotzen denez, azpikontratista, ekipoak eta instalazioak, materialak eta abar hornitzen duten pertsonak izan dezaketen atzerapenaren arduraduna kontratatik izango da. Era berean, kontratatik prestatu beharreko dokumentuetan izen daitezkeen berandutzeak edo epeak ez betetzea, eta horren ondorioz, aurreikusitako epean ez onartzearen ardura kontratatik izango da, baldin eta dokumentu horiek onartzeko atzerapenean errua EEE, kontratuaren arduraduna edo zuzendaritza profesionalarena izan ez bada.

Hau izango da zigorren zenbatekoa:

- i. a) idatz-zatian jaso zioagatik, kontratuaren zenbatekoaren %0'5, atzeratu izanaren aste bakoitzarengatik, gehienez ere, kontratuaren %10.



- ii. b) eta c) idatz-zatietan jaso zioengatik, kontratuaren prezioaren ehuneko 1. Nolanahi ere, kontratazio-organoak arrazoiz erabakitzen badu haustea larria edo oso larria izan dela, b) idatz-zatiko zioagatik kontratuaren %8 eta, c) idatz-zatiko zioagatik %15 ere ezar daiteke. Hausteak errepikatzea kontuan hartuko da haustearen larritasuna eta zigorraren zenbatekoa kalkulatzeko orduan.
- iii. d) idatz-zatian jaso zioengatik, azpikontratuaren %20 ere.
- iv. e) idatz-zatian jaso hausteagatik ezarriko da kontratuaren prezioaren 5.000 euroatik euro 1 eguneko zigorra. Aipatu zenbatekoa, hala badagokio, lehen egiaztagirian kenduko da.

Edonola ere, zigor maximo metatua izango da kontratuko prezioaren %20. Muga aipatua gainditzen bada, EEEk erabaki dezake kontratua suntsiaraztea.

Enpresa kontratista berandutzen bada, ez da beharrezkoa izango EEEn aldez aurretiko errekerimendua.

Aurkeztea ezegoki betetzeagatik zigorrak ezarriko dira kontratua jasotzean EEEk egiaztatzen badu, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuko xede diren zerbitzuak ez daudela jasoak izateko moduan.

Zigorrak betetzeko, kopuru aipatuak kenduko zaizkio kontratistari, hari ordaindu behar zaizkion guztizko ordainketatik, ordainketa partzialetatik edo, bestela ere, behin betiko bermeetatik, aplikatzekoa izango delarik SPKLen 198.8 artikuluan aurreikusitakoa.

Betetze akastunengatik zigorrak ezarriko dira alde batera utziz akats aipatuak konpontzeari buruz kontratistari legez dagozkion betebeharrak.

Zigorrak ezartzean ez da bazter utziko kalte eta galerengatik kalte-ordaina (SPKLen 198. artikulua).

39. KONTRATUA ALDATZEA ETA ETETEA

39.1. Aldatzea

39.1.1 EEEk kontratua alda dezake aurreikusi ez diren kontuak ebazteko, betiere, aldaketa horrek ez badu gainditzen hasierako kontratuaren prezioaren 100eko 20. Kontratistak derrigor izan behar ditu kontuan aldaketa aipatuak. Aldaketek, banaka edo guztiek batera, gainditzen badute ehuneko aipatua, kontratistak eskubidea izango du kontratua suntsiaraztea eskatzeko.

39.1.2 Kontratzeko aldaketen prezioa bi alderdiek finkatuko dute.

39.1.3 Kontratuan egin beharreko aldaketen eraginez baldintza tekniko berezien agirian jaso baldintza teknikoak aldatu behar badira, prezio aipatua finkatzeko kontuan hartuko dira kontratistak unitate bakoitzerako eskaini prezioak.

39.1.4 Kontratuko xede diren zerbitzuetako batzuk kendu edo murrizten badira, kontratistak ez du eskubiderik izango inolako kalte-ordainik eskatzeko.

39.1.5 Aldaketen eraginez erabili behar badira proiektuetan jaso ez diren edo jaso direnez oso bestelako ekipamenduak, instalazioak edo obra-unitateak, EEEk finkatuko ditu aldaketak aplikatzearen prezioak, betiere, hiru asteguneko epean kontratistari entzun ondotik. Kontratistak ez baditu onartzen prezio finkatuak, kontratazio-organoak bi aukera izango ditu: prezio finkatuan beste enpresaburu batekin kontratatzea edo, bestela ere, zuzenean gauzatzea. Beste enpresaburu batekin kontratazioa egitekotan, oinarri hartuko dira EEEn Barne Kontratazioaren Jarraibideetako aurreikuspenak, betiere, kontratuaren zenbatekoak ez baditu gainditzen batasuneko mugak. Edonola



ere, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez gauzatu daiteke, betiere, kontratazio aipatuak ez badu gainditzen kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20.

39.1.6 Aldaketetan, epea ezin da handitu edo murriztu zenbateko kontratatuak jasaten duena baino proportzio handiagoan. Nolanahi ere, zenbati kasu berezi eta egoki justifikatuetan, epe handiagoko aldaketa egin daiteke, betiere, enpresa kontratistak hala eskatu badu eta kontratuaren arduradunak txostena bidali ondotik.

39.1.7 Ezin izango dira sartu edo gauzatu egoki onarturik ez dauden aldaketak. Lanak zuzentzeaz, ikuskatzeaz edo zaintzeaz arduratzen diren pertsonak izan dezaketen erantzukizuna bazter utzirik, kontratista izango da kontratuko xedearen gain egiten diren eta EEEK egoki justifikaturik ez dauden aldaken erantzule. Kontratista, beraz, derrigorturik dago zerbitzua egokitzera baldintza itunduetara, ordainketa gehigarriak jaso gabe.

39.1.8 Kontratuko aldaketa moduan izapidetu beharko dira txostenean edo, hala badagokio, baldintza teknikoaren agirian aurrez ikusitako eta eskatutako material naturalen jatorrian gertatzen diren aldaketak.

39.1.9 Kontratuko aldaketak idatziz formalizatu beharko dira.

39.1.10 Kontratua suntsiarazteko zio izango da kontratuan aldaketak egitea, eta horiek, elkarren segidakoak izan arren, bakarka edo multzoka hartuta, kontratuaren hasierako prezioan 100eko 20ko gorabeherak eragitea, bai gorantz bai beherantz —Balio Erantsiaren Zerga kontuan hartu gabe—, edo kontratuaren beraren funtsa aldaraztea.

39.1.11 Kontratua aldatzearen eraginez kontratuaren prezioa aldatzen bada, behin betiko bermea egokitu beharko da, prezio aldatu berriarekin proportzio egokia izan dezan. Egokitzapen aipatua gauzatu beharko da aldatzeko hitzarmena enpresaburuari jakinarazi eta hamabost egun igaro aurretik.

39.1.12 EEEK erabakitzen duenean kontratuaren aldaketa idaztea, kontratua aldi baterako, partzialki edo guztiz etengo da, betiere, aldaketek haiekin badakarte ezin jarraitzea lanen zati jakin batzuk gauzatzen. Etete aipatua amaitutzat jotzeko akta formala egingo da, agiri honetako 39.2 klausulan aurrez ikusi diren baldintzetan.

39.1.13 Aldaketa bat izapidetzeko obren gauzatze osoa edo zati bat aldi batez eten behar bada, eta etete horrek kalte larriak sortzen baditu interes publikoan, EEEK erabaki dezake obrak behin-behinekoz martxan jarraitzea, kontratuko arduradunak egin proposamen teknikoan adierazi bezala, betiere, gehieneko zenbateko aurreikusiak ez badu gainditzen kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 eta obra aipatuak finantzatzeko kreditu askia nahiz egokia badago.

39.2 Kontratuaren gauzatzea etetea.

39.2.1 Behin gauzatzen hasita EEEK erabaki badu kontratua etetea, dela “aldi baterako etete partziala”, dela “aldi baterako etete osoa” edo “behin betiko etetea”, APKLAOren 103.2 artikuluan adierazi etete-akta egingo da. Akta horretan zehaztuko da etetearen mota, eta azalduko dira etenaldia eragin duten inguruabarrak nahiz kontratuko xede diren zerbitzuen gauzatzearen izatezko egoera. Aktan zehaztuko dira, baita ere, eteteak erasandako kontratuko zatia, zatiak edo kontratu osoa. Akta aipatua sinatu beharko dute EEEren ordezkari batek, kontratistak eta kontratuko arduradunak. Horrez gainera, aktari erantsi beharko zaio etenaldiaren egunera arte gauzatu zerbitzuen eta lanen zehaztapena.



39.2.2 Behin eteteko erabakia harturik, EEEk kontratistari ordainduko dizkio bigarren horrek egiazki jaso dituen kalte eta galerak. Kalte-ordain hori ordaintzeko, edonola ere, egiaztatu beharko dira kontratua etetearen eraginez sortu diren kalte eta galerak.

39.2.3 Kontratua behin betikoz eten ahal izango da soilik arrazoi larriengatik edo, bestela ere, agiri honetan adierazi kontratuaren eraginkortasunaren etenaldia amaitutzat jo eta, ondorioz, gauzatzea partzialki hasi bada, baina 9. klausulan aipatu baimen eta emakida guztiak lortu ez badira.

40. KONTRATUA LAGATZEA, AZPIKONTRATAZIOA ETA ORDAINKETAK ENPRESA HORNITZAILEEI

40.1. Lagatzea: EEEren idatzizko baimenik gabe, eta SPKLen 209. artikuluan xedatzen diren baldintza edo eskakizunak betez, kontratistak ezin izango du kontratu honetako egoera laga.

40.2 Azpikontratazioa:

40.2.1. Erregimena: Enpresa kontratistak hirugarrenekin hitzartu dezake zerbitzuaren parte bat gauzatzea, betiere, SPKLen 210. artikuluan finkatu muga eta baldintzatan eta agiri honetan jasotako aurreikuspen bereziak kontuan harturik. Edonola ere, lizitatzailleek eskaintzan berariaz adierazi beharko dute kontratuko zer parte azpikontratatuko dituzten, baita zenbateko aurreikusia zehaztu, azpikontratista proposatuak izenez identifikatu eta haien gaitasun teknikoa egiaztatu ere.

EEEk edonoiz eska diezaioke kontratistari egindako azpikontratazioa bertan behera uzteko, edo azpikontratazio horren kontra egin dezake, eta horrek ez du eraginik izango finkatutako prezio eta epeetan. Kode Zibilaren 1.597. artikuluan xedatutakoaren arabera, azpikontratu orok klausula bat jaso beharko du, azpikontratatuaren ekintza zuzenari uko egiten diotela adieraziz.

Dena dela, azpikontratatuak kontratistaren kontrol eta ikuskapenaren mende arituko dira une orotan, eta agiri honetan eta kontratuan zehazten diren betebeharrak guztien ardurak ezarri eta betearaziko dizkie kontratistak. Era berean, azpikontratistek bereganatuko dituzten betebeharren ardura kontratistarena izango da, eta EEEren baimena izan arren, kontratistak ez dio erantzukizunik eskatuko EEERI, azken horrek, zuzenean edo zeharka, jasan ditzakeen kalteengatik, azpikontratisten jardueraren ondorioz.

Kontratu edo agiri honen ondorioetarako, azpikontratistaren terminoaren barruan daude ere azpikontratisten azpikontratatik eta horien gainerako azpikontratatik.

Kontratistak eraikuntza alorrean azpikontratatzeko dauden lege eta arauak bete beharko ditu. Halaber, kontratistak beteko du eta harekin lanetan arituko diren azpikontratistei betearaziko die urriaren 18ko 32/2006 Legean xedatutakoa, eraikuntza alorrean azpikontratazioa arautzen duen legea. Lege horren arabera, kontratistak honako betebeharrak hauek ditu:

a) Une orotan obran bertan egon beharko duen azpikontratazio liburua izango du, eta legeetan xedatzen den eran zaindu eta erabiliko du. Haren berri izateko eskubidea dutenei ikuskatzen utzi beharko die kontratistak, 32/2006 Legearen 8. artikuluan xedatzen denari jarraiki.

b) 32/2006 Legean enpresa azpikontratistez xedatutakoa era zorrotzean bete beharko du (bata kontrata ditzaketan langile autonomoak ere); bereziki, 4. artikuluan akreditazio eta erregistroari lotutako alderdiak arautzen direnak, eta 5. artikuluan, azpikontratatzeko arauak diharduena, xedatutakoa. Horrekin batera, azpikontratistek Akreditatutako Enpresen Erregistroan izena emanda daudela eta 32/2006 Legearen 4. artikuluen 1. eta 2. ataletan zehazten diren eskakizunak betetzen dituztela ziurtatu edo bermatu behar du. Hori akreditatzeko, azpikontratista bakoitzaren legezko ordezkariak adierazpen bat sinatu behar du Akreditatutako Enpresen Erregistroan.

c) Lan arriskuen prebentzioari dagokionez, zerbitzua ematen ariko diren langile guztiek beharrezko prestakuntza egokia izan dezaten zaindu beharko du, lanpostura behar bezala egokituta. Arriskuak eta horiek prebenitzeko erak ezagutarazi behar dizkie langileei kontratistak. Gainera, kontratistak



eta azpikontratista bakoitzak erakutsi eta frogatu beharko dute kontratuaren arduradunaren eta zuzendaritza profesionalaren aurrean langileek izandako prestakuntza zehatza eraikuntza alorreko lan arriskuen prebentzioaz, azken horiek hala eskatzen dutenean; betiere, arauzko xedapenetan edota aplikagarriak izan daitezkeen lan itunetan ezartzen diren neurriak kontuan hartuz.

d) Obretan erabiliko diren makinaren jabetza egiaztatzen duten dokumentazioa edo titulua eskura izango du. Horretaz gain, makinak erabiltzeari begira, legeak eskatzen duen dokumentazio guztia ere eduki beharko du.

40.2.2. Azpikontratatzeko baldintzak, eskaintzan horrelakorik egingo denik ez bada zehaztu: Kontratistak eskaintzan ez badu adierazi kontratuaren parte bat azpikontratatzeko asmoa duela baina behin kontratua gauzatzeari ekin eta zerbitzuen parte bat azpikontratatu nahi badu, ondoko baldintza hauek bete beharko ditu:

a) EEEren aurretiazko eta berariazko baimena beharrezkoa izango da. Horretarako, kontratistak eskabidea egin beharko du, zeinean zehaztuko dituen egin nahi diren azpikontratazioak, kontratuko zer zati eta zer zenbateko azpikontratatu den eta azpikontratistaren nortasuna eta zeinean adieraziko duen, elementu tekniko, giza elementu eta eskarmentu nahikoa izateagatik, azpikontratatu gai dela.

b) Jakinarazpen horrekin batera, kontratistak ondoko agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Kontratuaren zirriborroa edo enpresa azpikontratista bakoitzarekin sinatu beharreko agiri aldebikoa, zeinean bi aldeek adostuko dituzten epeak, gauzatze-baldintzak eta ordaintze-baldintzak.
- Egiaztatzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta edukitzea. Egiaztatze aipatua gauzatuko da agiri honetako 27.2 eta 27.3 klausuletan adierazi bezala.

40.2.3. EEEK berariaz baimentzen badu azpikontratua egitea, behin azpikontratua formalizaturik, kontratistak EEEri bidaliko dio agiri aldebikoaren agiri originalaren ale bat. Aipatu aleak egoki sinaturik behar du eta bertan adostuko dira epeak nahiz ordaintze-baldintzak, biek ala biek bete beharko dutelarik SPKLen 221. artikuluan ezarritakoa. Betebehar hori betetzen ez badu, edo ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez baditu, ezin izango du azpikontratazio hori egin.

40.2.4. Kontratistak ez baditu baldintza horiek betetzen, kontratua suntsiaraziko da EEEren alde.

40.3. Ordainketak azpikontratistei.

Kontratistak ordaindu beharko die azpikontratistei, edo ordainduko zaiela bermatzea, EEEK onetsi ondoren, harengandik obra-ziurtapenak jaso bezain laster; betiere, SPKLen 211. artikuluan ezarri baldintzatan.

Kontratistak azpikontratistei ordaintzeko dituen betebeharrak beteko ez balitu, edo azpikontratistaren batek kantitate bat ordaintzeko EEEri eskatuko balio, kontratistari eskatzen dioten kantitatea ordaindu gabe utz dezake, hark ordainketa egin arte, edo EEEK ordainketa egin; azken aukera hori gauzatuz gero, prezioetik deskontatuko du kantitate hori.

EEEk eska diezaioke kontratistari, obra-ziurtapen bakoitzarekin batera, kontratistak sinatutako ziurtagiri bat azpikontratista bakoitzeko, eta bertan dagozkien ordainketak jaso dituztela egiaztatuko da, edo ordainketa bere osotasunean egingo zaiela bermatuta; betiere, EEEK aurretiaz kontratistari egindako ordainketak izanik, eta hala badagokio, kontratistak azpikontratistei egin ahal dien atxikipenak kontuan hartuz.

VII.- KONTRATUA AMAITZEA



41. KONTRATUA BETETZEA

Enpresa kontratistak kontratuaren xedea oso-osorik bete duenean —kontratuan ezarritako baldintzen arabera eta EEE gogobete izanik— orduantxe joko da kontratua betetzat.

Enpresa kontratistak eskubidea izango du berak emandako prestazioari buruz Administrazioak egiten dituen oharra ezagutzeko eta ohar horiei buruz esateko duena entzun dakion.

42. OBRA HARTZEA

42.1 Oro har, SPKLen 205.2, 268 eta 273 artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da.

42.2 Kontratuaren xede diren lanen hartzea behar bezala egin beharko du eta erabat amaituta. Obrak edo lanak erabat amaitutzat joko dira erabiltzeko moduan daudenean, eta instalazioak eta zerbitzuak funtzionamendu egokian daudenean, eta horretarako, tokian tokiko erakundeen legezko baimenak jaso direnean. Agiri honetan jasotzen denez, kontratistaren kontura joango direnak.

Obrak eman aurretik, baldintza tekniko berezien agirian azaltzen den moduan, kontratistak honako baldintza hauek guztiak bete beharko ditu:

- (a) Zuzendaritza profesionalak azken ziurtagiria eman edo aurkeztuta eduki behar du.
- (b) Abian jartzeko entseguak/probak gaindituta edukitzea.
- (c) Gunea eta amaituta egongo diren inguruko aldeak eta instalazioak garbituta uztea, kontratuaren arduradunaren oniritziarekin.
- (d) Aldi baterako egitura guztiak kenduta izatea; esate baterako, garabiak, jasogailuak, makinak eta abar. Horrekin batera, estalkiak, babesleak eta horrelako materialak ere kenduta egon beharko dira, zuzendaritza profesionalak besterik esaten ez badu.
- (e) EEEK gorde nahi lituzken ekipo eta material guztiak bilduta edukitzea modu egokian, zuzendaritza profesionalak aginduko duen lekuan biltegitratuko dira.
- (f) EEEren erabilerari begira, eta azpiestazioa behar bezala ibiltzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko beharrezkoa diren planoak eta jarraibideak prestatuta izatea. Horretaz gain, erabiliko diren material guztien zerrenda zehatza ere prestatu beharko da.
- (g) EEEri ematea honako dokumentazio hau emanda izatea: (i) obren kontrolen dokumentazioa; (ii) fabrikatzaileek eta enpresa laguntzaileek emandako era guztietako bermeei lotutako dokumentuak; baita bestelako materialen bermeei lotutakoak ere. (iii) legeak eskatzen duen dokumentazio guztia eta obrarekin zerikusia duen dokumentazioa (lizentziak, baimenak, tasak ordaindu izanaren egiaztagiriak, instalatzeko buletin ofizialak, etab.).

42.3 Obra amaitu bezain laster, haren berri emango die kontratistak EEEri eta zuzendaritza profesionalari. Obra hartzea akta batean jasoko da (hartze-akta izenekoan), eta EEEK, kontratistak eta zuzendaritza profesionalak sinatuko akta hori Hartze-akta egiteko deialdia EEEK egingo du, hogeita hamar (30) eguneko gehieneko epean, kontratistak obra amaitu dela jakinarazten dion egunetik kontatzen hasita.

Obra amaitu dela jakinarazten dion egunetik hogeita hamar (30) egun igaro ondoren, eta EEEK aipatutako deialdia egiten ez badu, hartzea guztiz burututzat joko da.

Hartze-aktan honako datu hauek azalduko dira:

- (a) Parte hartzen duten aldeak.
- (b) Obra osoari dagokion azken ziurtagiriaren data.
- (c) Obra gauzatzeko kostu osoa.
- (d) Obra hartzeko bertaratzearen adierazpena, erreserbekin ala ez.



EEE adierazitako epean hartze-akta ematera aurkeztuko ez balitz, eta behar bezala justifikatuko ez balitz, hartze-akta modu egokian egin dela ulertuko da. Bertaratuko ez dena kontratista izango balitz, eta behar bezala justifikatuko ez balitz, EEEren aldetik bakarrik egingo den hartze-akta zuzena izango litzateke ondorio publiko guztietarako.

Obra hartzea bazter utz dezake EEEK, baldin eta lanak amaitu gabe daudela uste badu, edo kontratuan jasotzen denarekin ez datozela bat egindako lanak. Nolanahi ere, arrazoitu beharko du zergatia, eta idatzi beharko du hartze-aktan, eta bertan beste hartze bat egiteko epe berria zehaztuko da.

EEEren iritziz, egindako obran ukitu txiki batzuk egin behar badira ere, azpiestazioaren erabilera, segurtasun eta eragiketari eragiten ez badiete, eta EEEK zehaztuko duen epe labur batean konpontzeko moduak badira, ez da oztopo izango, inola ere, hartzea ez egiteko, ezta kontratistari zor zaizkion kantitateak ez ordaintzeko edo geroratzeko ere. Aipatutako epea igaro ondoren, eta konponketa egin gabe egongo balitz, EEEK bere kabuz zuzentzeko eskubidea izango luke, besteren bidez eta kontratistaren kontura.

Obra hartzea erreserbekin egingo balitz, horiek modu objektiboan zehaztuko dira eta antzemandako akatsak zuzentzeko edo konpontzeko epea finkatuko da. Aipatutako epea igaro ondoren, eta konponketa egin gabe egongo balitz, EEEK bere kabuz zuzentzeko eskubidea izango luke, besteren bidez eta kontratistaren kontura.

Adierazitako akatsak zuzendu ondoren, edo haien kontura eragiketa eginda, atxikipen edo bermeen kontura egin daitezkeenak, hartze-akta osagarri batean idatziko da, eta aurreko paragrafoetan azaldutako moduan egingo da hartzea.

Obren hartze-akta egindakoan, inolako erreserbarik gabe eta akatsak edo arazoak konpondu ondoren, eta hartze-akta osagarria emanda, kontratistari ordaindu barik edo atxikiak zituen diru kantitateak itzuliko zaizkio, agiri honetan jasotzen den bezala.

Hala ere, behin betiko bermea EEEren esku geratuko da, agiri honetako 43. klausulan zehazten den bermealdia amaitu arte..

43. BERMEALDIA ETA KONTRATISTAREN BERMEA (SPKLen 274. artikulua)

43.1. Bermealdia Obra hartzea egin eta gero, eta aurreko klausuletan aipatzen den moduan akatsak zuzendutakoan bi (2) urteko bermealdia hasiko da. Epe horretan kontratistak konpondu beharko ditu gerta litezkeen arazoak edo matxurak; betiere, horien errua hari egotziko bazaizkio eta zuzendaritza profesionalak aginduko duen epean eta jarraibideak kontuan hartuta.

Bermealdiaren epearen barruan, EEEK antzemandako arazo edo matxuren konponketari ekiten ez badio kontratistak, EEEK horiek konpontzeko agindua ematen duenetik hamabost (15) eguneko epean, edo zuzendaritza profesionalak arazo edo matxura horiek konpontzeko emandako epea betetzen ez ditu, EEEK bere kabuz konpontzeko eskubidea izango du, haren langileen bidez edo horretarako propio kontratatuko dituen langileen bitartez eta kontratistaren kargura. Nolanahi ere, arazo edo matxura horien gastuak direla, EEEK kantitateak ordainduta ere, behin betiko bermetik kenduko lioke zenbatekoa kontratistari.

Bermealdia amaitzen den eguna baino hamabost (15) egun baliioduneko epearen barruan, EEEK ofizioz edo kontratistaren eskariz, obren egoeraz eta azpiestazioaren funtzionamenduaz txosten bat egingo du. Txosten hori aldekoa balitz, kontratista erantzukizun edo ardura guztietatik aske geratuko litzateke, Eraikuntza Ordenazio Legeak xedatutakoa izan ezik, eta izan litezkeen ezkutuko



arazo edo matxuren ardurei dagokienez izan ezik. Horren ondoren, bermea bertan behera geratuko da, edo itzuli egingo da, kontratua deuseztatuko da eta ordaintzeko leudekeen kantitateak kitatuko liriteke, hirurogei eguneko epean egin beharreko kitapena, hain zuzen ere,. Aipatutako txostena aldekoa ez balitz, EEEk zenbait agindu eta jarraibide emango lizkioke kontratistari, hornitu edo instalatutakoa konpondu eta zuzentzeko; horretarako, epe bat emango lioke eta horren barruan bera ere arduratuko litzateke obraren kontserbazioaz, eta bermealdia luzatzeagatik kobratzeko eskubiderik ez luke izango.

Bermealdian kontratista izango da linea elektriko hornituetan ager litezkeen akatsen erantzule, baita linea elektriko hornituak instalatzean edo lur azpian sartzean hauteman litezkeen akats edo okerrena ere. Era berean, kontratistak bere kontura ordaindu beharko ditu kontratuko xede diren prestazioak zaintzeagatik gastuak, eta ez du eskubiderik kalte-ordainik jasotzeko, salbu eta halabeharrez gertatzen diren kalteengatik. EEEk azken horiek bere gain hartuko baditu ere, kontratistari eska diezaiolke beharrezkoak diren konpontze-lanak egin ditzan.

Bermealdia amaitu eta gero, gerta litezkeen ezkutuko arazo edo matxurengatik, kontratistak EEERI eman beharko dizkio azalpenak, Kode Zibilak eta Eraikuntza Ordenazio Legeak xedatutakoa betez.

43.2 Ingeniaritzari eta diseinuari lotutako bermeak

- (a) Agiri honetan eskatzen denari jarraiki, kontratistak haxe bermatu beharko du: EEERI emango dion dokumentazio guztia, gauzatzeko egitasmoa barne, behar bezala eginda dagoela, den-dena beteta dagoela eta kontratua garatzeko EEEk onartutako aldaketa guztiak jasotzen direla. Era berean, dokumentazio hori kontratuari aplikagarriak zaizkion kode eta araudiekin bat datorrela, kontratuko dokumentuen arabera, bermatu beharko du kontratistak. Horretaz gain, indarrean dagoen legeria eta aplikagarriak zaizkion baimenak, lizentziak eta abar bete beharko ditu dokumentazioak.
- (b) Dokumentazioak akats, hutsune edo osatu gabeko horniketaren bat agerian uzten baldin badu, kontratistak zuzendu beharko du dokumentazioa eta haren kostuak ez zaizkio EEERI egotziko.
- (c) Kontratistak aurkeztuko duen dokumentazioan izan litezkeen akatsengatik ekipoak kaltetuko balira, horiek ordezkatzera edo konpontzearen arduradun bakarra kontratista izango da.
- (d) Kontratistak azpiestazioari lotutako lanak egiten hasten denetik bermearen epea amaitzen den egunera arte iraungo du bermealdiak, diseinuan izan litezkeen akatsengatik kontratistaren ardura aintzat hartuta, hurrengo atalean, (e), zehatzen den bezala.
- (e) “Diseinu akats”tzat haxe jo da: bermealdia indarrean dagoen bitartean, obren diseinuari eragiten dion edozein gorabehera eta kontratuan edo kontratuko dokumentuetan ezarritakoarekin bat ez datorrena.

Obren diseinu egokia egitea kontratistaren ardura izango da, kontratuan, kontratuko dokumentuetan eta gainerako legeria aplikagarrian xedatutakoaren arabera. Alde bietako batek diseinu akatsen bat antzemanaz gero, berehala jakinaraziko lioke beste aldeari idazki baten bidez. Kontratistak, EEERen oniritziarekin, agerian utzi beharko du ez dagoela diseinu akatsik, edo bestela, ahalik eta lasterren ekingo lioke horiek konpontzeari. Antzeman daitezkeen diseinu akats horiek konpontzen hasteko epea ez da zazpi (7) egunekoa baino luzeago izango, kontratistak antzeman edo EEEk eskatzen den egunetik kontatzen hasita.

Azpiestazioak izango duen bi (2) urteko bermealdia amaitu aurretik, izan litekeen edozein diseinu akats ahalik eta lasterren konpontzeko ardura kontratistarena izango da, eta gastua haren kontura joango dira.

Kontratistak antzeman litezkeen diseinu akatsak arrazoizko epe batean konpontzea lortzen ez baditu, alde aurretik EEEk onartu beharreko epea izango dena, azken honek idatzizko jakinarazpen baten bidez adieraziko dio zer epetan konpondu beharko dituen diseinu akats horiek. Kontratistak adierazitako epean konpontzen ez baditu, edo EEERen iritziz, konpontzeari ekiten ez badio modu



egokian, haren berri emango dio idatziz EEEk kontratistari eta hoge (20) eguneko epea igaro ondoren, EEEk honako hau egiteko eskubidea izango du:

- a) Diseinu akatsak haren kabuz edo besteren bidez konpontzea, behar bezala justifikatuko dituen merkatuko prezioen arabera, eta kontratistaren kontura; edo, bestela:
- b) Izan litezkeen kalte-ordain zuzenen ondorioz, kontratistak EEEri ordaindu beharko dio dagokion zenbatekoa, gaizki diseinatutako elementuaren gehieneko prezio muga kontuan izanik.

43.3 Berme mekanikoa.

(a) Kontratistak haxe bermatu beharko du: azpiestazioak ageriko zein ezkutuko akatsik ez duela, eta hornitutako ekipo eta material guztiek diseinu egokia izateaz gain, berriak eta eskatutako kantitate eta kalitatearen arabera direla. Horrekin batera, langileen prestakuntza egoki edo zuzena dela eta kontratutako dokumentuetan jasotzen denarekin bat datorrela bermatu beharko du.

(b) Kontratistak langile, ekipo edota materialen horniketa bermatuko du, eta bermealdia indarrean dagoen bitartean, diseinu desegoki, akats edo gaizki eginda izategatik arazoak eta matxurak dituzten materialak ordezkatu ditu, baldin eta akats horiek desgaste normalaren ondorioz ez badira.

(c) Agertuko diren akatsen konponketaren arduraduna kontratista izango da, ahalik eta lasterren egingo dira eta EEEk zehaztuko du egiteko epea. Kontratistak konpontzea lortuko ez balitu, edo konpontzeari uko egingo balio, EEEk bere gain hartzen du eskubidea berak edo besteren bidez konpontzeko, kontratistaren kontura eta arriskuz. Luzapenaren ondorioz sor litezkeen kalteak kontratistaren ardura izango lirateke.

(d) EEEk bere gain hartzen du eskubidea kontratistari eskatzeko proba berriak, eragindako berme teknikoak betetzeari begira, azpiestazioaren funtzionamendu egokirako lanak edota konponketak garrantzi handikoa balira, eta horiek ekar ditzaketen gastuak kontratistaren kontura joango lirateke.

(e) Bermealdia indarrean egongo den bitartean, kontratistak ekipo eta osagai akastun edo desegokiak berriro diseinatu, aldatu, ordezkatu edo konpondu beharko ditu, azpiestazioaren funtzionamendu etengabea, segurua eta egonkorra bermatzeko beharrezkoak diren ekipo eta osagaiak, hain zuzen ere. Eragiketa horiek guztiak egiteko kostua kontratistak ordaindu beharko du.

(f) Bermealdi mekanikoa bi (2) urtekoa izango da, obra hartzea egiten den egunetik kontatzen hasita. Aipatutako denbora horretan, azpiestazioa edo haren edozein ekipo ezin bada erabili fabrikatzailearen parametroen edota diseinuaren ahalmenaren arabera, kontratistari egotzi ahal zaion erruagatik, bermealdia luzatuko da, eta azpiestazioa edo ekipoa erabili gabe egondako denbora izango da aldi edo epe berria.

(g) Bermearen kausaz, kontratistak ordezkatu edo konponduko dituen elementuek bi (2) urteko bermea izango dute, ordezkatzeko edo konpontzeko diren egunetik kontatzen hasita, eta hori gertatzen den guztietan horrela jokatu da sei (6) urteko gehieneko epean, obra hartzea egiten denetik aurrera. Data hori igarotakoan, kontratistak laguntza teknologikoa eman beharko du arazoa konpondu arte.

(h) Eragiketa eta mantentze lanei buruzko eskuliburuan aurreikusten denari jarraiki, azpiestazioa abaian jartzen denetik aurrera, egin beharreko konponketak gauzatu aurreko jardura guztiaz arduratuko da EEE, baldin eta kontratistak hornituko dituen ekipo eta sistemekin bateragarriak badira.

44. KONTRATUAREN LIKIDAZIOA

EEEk likidazioa egin beharko du. Horretarako, likidazioaren emaitzari aplikatu beharko dizkio kontratuaren prezioak eta baldintza ekonomikoak, betiere, enpresa kontratistari jakinarazpena bidali ondotik. EEEk likidazioa onartu eta ordaindu beharko du hirurogei eguneko epean. Likidazioaren saldoa berandu ordaintzen bada, enpresa kontratistak eskubidea izango du berandutze-interesak eta kobrantza-kostuengatik kalte-ordaina jasotzeko, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren kontra borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusi baldintzetan.



45. BEHIN BETIKO BERMEA EZEZTATZEA ETA ITZULTZEA EDO BUELTAN EMATEA

45.1. Behin betiko bermea ez da bueltan emango edo ezeztatuko agiri honetako 43. klausulan ezarritako bermealdia bete arte eta kasuan kasuko kontratua egoki bete arte edo, bestela ere, kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazi arte.

45.2. Behin kontratuaren likidazioa onarturik eta bermealdi ezarria beterik ez bada erantzukizunik, berme sortua bueltan emango da edo kauzio-abala ala aseguru ezeztatu.

45.3. Bueltatze-erabakia hartu eta interesdunari jakinarazi beharko zaio bermealdia amaitu ondotik bi hilabeteko epean. Epe hori amaiturik, EEEk ordaindu beharko dio kontratistari ordaindu beharko dio zenbateko zordundua eta, EEEri egotz dakiokkeen zioagatik berme bueltan eman ez bada, hari gehitu beharko zaio diruaren legezko interesa, bi hilabeteko epe hori betetzen denetik kontratistari berme bueltan ematen zaionera arteko epeari dagokiona.

45.4. Kontratuak laga badira, lagatzaileak emaniko berme bueltan emango edo ezeztatuko lagapen-hartzailearena formalki eraturik egon arte.

45.5. Kontratua amaitu, urtebete igaro bada eta enpresa kontratistari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ez bada egin kontratuaren hartze formala ezta likidazioa, berme bueltan eman edo ezeztatuko da, berandu gabe.

46. KONTRATUA AMAITZEA, SUNTSIARAZTEA ETA AINTZAT EZ HARTZEA

46.1 Kontratua suntsiaraztea

46.1.1 Hauek dira kontratua suntsiarazteko zio: agiri honetan berariaz aurreikusitakoak; Kode Zibilean aurreikusitakoak; eta SPKLen 206 artikuluko a), c), e) eta g) idatz-zatietan jasotakoak.

46.1.2 Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, EEEren eskariz, eta betearazteko eskubidea baztertu gabe, hauek ere izango dira kontratua suntsiarazteko zioak:

(a) Kontratistak ez aurkeztea TC1 eta TC2 ereduak behar bezala likidatuta, edo kontratatu beharreko aseguru-polizei dagokien ordainketa egiten ez badu, agiri honetan adierazten den moduan.

(b) Obretan jarduera eza nabaria antzematen denean, ezinbestekoak eraginda ez denean.

(c) Lan-programan zehaztutako edozein eperen arabera, obrek hamabost (15) eguneko atzerapena baino handiagoa izaten dutenean, atzerapen hori justifikatuta ez badago, ezinbestekoak eraginda.

(d) Obrak gauzatzean akats larriak direnean. Akats larritzat hauek joko dira. Obretarako aurreikusten diren erresistentzia eta iraupena nabarmen gutxitzen dutenak, kontsumoan igoera nabarmenak eragiten dituztenak, gauzatzeke prezioa igoarazten dutenak, obretarako desegokiak, arriskutsuak, espero izatekoa baino errendimendu txikiagoa ekartzen dutenak, antzeko obretan baino matxura gehiago eragiten dutenak edo horrelako egoerak sorrarazten dituzten ginerako guztiak.

(e) Kontratuko dokumentuetan edo agiri honetan azaltzen diren klausuletan adierazten den betebeharren bat ez betetzea, erabat edo aldeztu, kontratistaren aldetik, eta bereziki, emandako aginduak eta jarraibideak ez betetzea, edo kontratuko dokumentuetan finkatutako zehaztapenei kasu ez egitea.

(f) Hirugarren batek kontratistarekin egindako edozein eraikuntza-kontratu suntsiaraztea erabaki edo eskatzen duenean, edo azpikontratistaren eskariz, azpikontratekin dituenak suntsiarazten direnean. Horretaz gain, eraikuntzan izandako arazoak edo matxurak tarteko, kontratistaren kontra erreklamazioak direnean.



46.1.3 Kontratistak hala eskatzen badu, kontratua suntsiarazteko zioa izango da EEEk ez ordaintzea, justifikatu gabekoa bada, eta ordainketa egiteko edo betetzeko eskubideari uko egin gabe, baldin eta eskatzen denetik hiru (3) hilabeteko epea igaro bada eta ordainketa horretaz inolako desadostasunik izan ez bada aurretiaz.

46.1.4 Agiri honetan zehazten diren betebeharren bat ez betetzea gertatzen den bezain laster, ez betetzea egin ez duen aldeak eskatuko dio beste aldeari bete dezan. Kontratua eskubide guztiakin suntsiaraziko da, baldin eta ez betetzea egin duen aldeak ez betetzea konpontzen hasten ez bada hamar (10) eguneko epearen barruan, jakinarazpena bidaltzen den egunetik kontatzen hasita, edo ez betetzea konpontzen ez bada hamar (10) eguneko epearen barruan, jakinarazpena bidaltzen den egunetik kontatzen hasita, edo epe laburragoan alde biek hala adosten badute.

46.2 Suntsiarazteko beste zio batzuk.

EEEren eskariz, eta kontratistaren edo azpikontratisten borondateetik kanpo dauden arrazoiak direla eta, obrak hogeita hamar egun baino gehiago geldi badin badaude, kontratua suntsiarazteko zioa izango da, gerta litezken ezinbestekoak barne direlarik. Nolanahi ere, ezinbestekoa gertatzen denean, eta obrarekin aurrera egitea ezinezkoa bada, kontratua eskubide osoz suntsituko da eta ezinbestekoa gertatzen denean gauzatuko da.

46.3 Aintzat ez hartzea alde batetik.

EEEren aldetik kontratua aintzat ez hartzeak ekarriko du kontratua amaitzea, Kode Zibilaren 1.594 artikuluan xedatutakoaren arabera, kausa justifikatua izan beharrik gabe.

VIII.- JURISDIKZIOA

47. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio zibilean erabakiko da kontratu hau prestatzeko edota esleitzeko fasean suerta daitezkeen gatazkak erabakitzeko (SPKLen 21. artikulua).

Jurisdikzio zibila ere erabiliko da kontratua interpretatzetik, aldatzetik, suntsiaraztetik edo amaitzetik suerta daitezkeen gatazkak ebazteko. Bi aldeek –EEEk nahiz kontratista esleipendunak– boluntarioki men egiten diote Bilboko Epaitegien eta Auzitegien eskumenari, eta berariaz uko egiten diete egoki dakizkiekeen beste eskumenei.



AGIRIKO I. ERANSKINA
BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO ETA GAUZATZE-BALDINTZA BEREZIAK
BETETZEKO KONPROMISOA

Enpresak hitz ematen du bere produkzio-antolakuntza erabiliko duela jarduera kontratatua garatzeko eta, horrez gainera,

Gaitasun teknikoari buruzko egiaztagiriak osatze aldera, kontratua gauzatzeko baliabide material eta pertsonalen artean, enpresak hitz eman behar du jarraian adierazi baliabideak erabiliko dituela (*aipatu baliabideak, edonola ere, kontratazio-organoak finkatu ditu, uste baitu baliabide pertsonalek edo materialek gutxieneko baldintzak eta prestakuntzak izan behar dituztela*):

I.- Baliabide materialak

.....

II.- Baliabide pertsonalak:

.....

BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO ETA GAUZATZE-BALDINTZA BEREZIAK
BETETZEKO KONPROMISOAREN ADIERAZPENA

.....
jaunak/andreak
..... udalerriko
kalean bizi denak
eta NAN duenak,-en izenean (bere
izenean ala ordezkatzeko duen erakunde edo enpresaren izenean), zeinaren IFK
den, jakinarazpenetarako helbideako
kalea PK den, eta Tfnoa den

ADIERAZTEN DU:

Hartzen duela karatulan nahiz agirian zehaztu gauzatzeko baldintza bereziak betetzeko konpromisoa eta kontratua gauzatzeko ondoko hauek erabiltzea: a) berezko bere produkzio-baliabideak, b) gauzatzeko baldintza berezi moduan agirian finkatu baliabideak, c) "A" gutun-azalean (Gaitasuna eta kaudimena) egiaztatu baliabideak, eta, finkaturik baleude, baita eranskin honetan adierazi baliabide pertsonal eta material zehatzak ere.

Eta jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut,en,ko
.....(a)ren(e)(a)n.

Sinadura



AGIRIKO II. ERANSKINA GAITASUNARI BURUZKO ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak,
.....ko bizi eta NAN
duenak,-en izenean (bere izenean ala ordezkutzen duen erakunde
edo enpresaren izenean), zeinaren IFK den, jakinarazpenetarako helbidea
.....ko kalea PK
..... den eta Tfnoa den

EER/10/009-A espedienteari dagokionez,

ADIERAZI DU

1. Kontratu honi dagokionez, jarduteko gaitasun osoa duela eta jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak dituela.
2. Ez berak, ez berak ordezkutzen duen enpresak, ezta enpresako administrariak edo haren legezko ordezkariak ez dutela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko (urriaren 30eko 30/2007 Legeko) 49.1 artikuluan jasotako Herri Administrazioekin kontratatzeko debekurik.
3. Era beran, adierazten du enpresak beterik dituela indarreko xedapenen bidez ezarritako zerga-betebehar nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebehar guztiak. Horrela, hitz ematen du hari kontratua behin-behinekoz esleitzen bazaio, gehienez ere 10 asteguneko epean –Administrazio honetako kontratatzailearen profilean behin-behineko esleipena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita– aurkeztuko duela aipatu baldintzaren egiaztagiria, administrazioko klausula berezien agiriko 25. klausulan adierazi bezala.
4. Ez dela esleipenduna edo ez duela parte hartu ez kontratua prestatzeko agiriak ezta baldintza teknikoak lantzeko orduan ere, ez berak bakarrik, ezta aldi baterako enpresaburu-elkartearen bidez ere.
5. *Ondoko ataletan, BAI edo EZ erantzun.*
 - 5.1. Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofiziala
 - a) Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribaturik dagoela, indarreko egiaztagiriak, eta:
-dagokion egiaztagiria aurkeztu duela (*bai ala ez erantzun*): _____
-baimena ematen duela aipatu egiaztagiria ofizioz sartzeko (*bai/ez*): _____
 - b) Hura emateko oinarri hartu ziren inguruabarrak oraindik indarrean direla adierazten duela (*bai ala ez erantzun*): _____
 - 5.2. Enpresa taldea (*Merkataritzako Kodeko 42.1 artikulua*)
Enpresa aipatua enpresa talde bateko kide dela (*bai/ez*): _____
Baietz erantzunez gero, jarraian edo agiri honi erantsirik zehaztu beharra dago taldearekiko lotura sortzen duen inguruabarra eta, baita ere, talde bereko enpresen zerrenda, lehiaketan parte hartzeko interesa dutenak zehaztuz.

Eta jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut,en,ko
.....(a)ren(e)(a)n.

Sinadura



AGIRIKO III. ERANSKINA

BESTE HOBKUNTZA BATZUEI BURUZKO PROPOSAMENA, EZ DUTENAK ERAGINGO PREZIO ESKAINIA HANDITZEA ETA OINARRI DUTENAK ESKAINTZAK BALIOESTEKO BESTE IRIZPIDEETAN JASO EZ DIREN PRESTAZIOAK GEHITZEA KONTRATUAN AGINDUTAKO BETEBEHARREI

..... jaunak/andreak,ko
 kalean bizi denak eta NAN
 duenak,-en izenean (bere izenean ala ordezkatzeko duen erakunde edo enpresaren izenean), zeinaren IFK den, jakinarazpenetarako helbideako kalea PK den, eta Tfnoa den

Administrazioko klausula berezien agiriko 16.1 klausulan ezarritakoarekin bat etorrituz, erreferentzia duen oinarritzko eskaintzari/aldaerari dagokionez (egoki dena adierazi), jarraian zehaztutako diren hobekuntza-proposamenak egin ditu, eskaintzako prezioa handitu gabe. Proposamenen oinarria da kontratuan agindutako eta eskaintzak balioesteko beste irizpideetan jasotako ez diren betebeharrei beste prestazio batzuk gehitzea.

Edonola ere, hobekuntza guztiak banan-banan aztertuko dira. Horrela, kontratazio-organoak erabakiko du hobekuntza horietako bat, batzuk edo bate ere ez jasotzea kontratuaren barruan.

HOBEKUNTZAREN ZENBAKIA ...	
Hobekuntzaren azalpena:	

HOBEKUNTZAREN ZENBAKIA ...	
Hobekuntzaren azalpena:	

HOBEKUNTZAREN ZENBAKIA ...	

.....en,ko(a)ren(e)(a)n

Sinatua:
 NAN:



AGIRIKO IV. ERANSKINA ESKAINITZA EKONOMIKOA

..... jaunak/andreak,
.....ko
..... kalean bizi denak eta NAN
duenak,-en izenean (*bere izenean ala ordezkatzeko duen erakunde
edo enpresaren izenean*), zeinaren IFK den, jakinarazpenetarako helbidea
.....ko kalea PK
..... den eta Tfnoa den

ADIERAZTEN DU

I.- Izan duela *Biscay Marine Energy Platform (bimep)* azpiegiturari lotutako azpiestazio elektrikoaren egitasmo, eraikuntza, ezarpen eta abian jartzea xede duen kontratua esleitzeko prozeduraren berri.

II.- Halaber, ezagutzen dituela baldintza teknikoaren agiria, administrazio-klausula berezien agiria eta kontratu hau zuzenduko duten gainerako agiriak. Horiek guztiak, salbuespenik gabe, bere gain hartzen ditu berariaz, eta men egiten die.

III.- Ordezkatzeko duen enpresak betetzen dituela kontratuko xedea betetzeko indarreko arauak eskatzen dituzten baldintza eta betebeharrak guztiak, eta eskaintza lantzeko orduan kontuan izan dituela enplegua babesteari, lan baldintzei, laneko arriskuak prebenitzeari eta ingurumena babesteari buruzko indarreko xedapenetatik eratoritzen diren eginbehar guztiak.

IV.- Eskaintza hau aurkezteari dagokionez, eskaintza gauzatzea proposatzen duela azpiko koadroetan adierazi prezioetan, BEZ KANPO. Zenbateko aipatuari (*)..... (*letraz idatzi*) euroko BEZa dagokio.

Zenbateko aipatuaren barne izango dira zeinahi motatako zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak, bai eta prestaziotik erator daitekeen edo agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunari sor dakioken zeinahi gastu ere.

.....en,ko(a)ren(e)(a)n

Sinatua:

NAN:

(*) *Salbuespen subjektiboari dagokionez, egiaztagiriak zehaztu eta erantsi beharko dira.*



AGIRIKO V. ERANSKINA
ESTATUAREKIKO ETA EUSKADIKO FORU ALDUNDIEKIKO ZERGA-BETEBEHARREI
BURUZKO INFORMAZIOA UZTEKO BAIMENA (*).

..... jaunak/andreak,
.....ko kalean bizi denak eta
NAN duenak,-en izenean (bere izenean ala
ordezkutzen duen erakunde edo enpresaren izenean), zeinaren IFK den,
jakinarazpenetarako helbideako kalea
..... PK den, eta Tfnoa den

EER/10/009-A espedienteari dagokionez,

EEEri baimena ematen dio baliabide informatikoen edo telematikoen bidez eskatu dezan zerba-
betebeharrak beteta izanari edo ez izanari buruzko informazioa utz diezaioten, goian adierazitako
espedienteko kontratazio-prozeduraren ondorioetarako, betiere, bat etorritik Datu Pertsonalak Babesteari
buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan; *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta*
beste zerga-arau batzuei buruzko abenduaren 9ko 40/1998 Legeko laugarren xedapen gehigarrian; eta
aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoarekin.

Eta jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut,en,ko
.....(a)ren(e)(a)n.

Sinadura

(*). *Baimen honek, berak bakarrik, ez du kentzen betebeharrak hauek bete izana egiaztatzen duten agiriak aurkezteko beharra.*



AGIRIKO VI. ERANSKINA
ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIAL IZENDATZEKO EREDUA

..... jaunak/andreak,
.....
..... udalerriko kalean bizi
denak
eta NAN duenak, bere izenean / ordezkatzeko duen
enpresaren izenean, zeinaren IFK den, jakinarazpenetarako helbidea
.....ko kalea PK den eta zeinaren
Tfnoa den

ADIERAZTEN DU

EER/10/009-A zenbakidun kontratazio-espeditenteko (*gutun-azala zein den zehaztu*) gutun-
azalean jasotako agirietatik, jarraian aipatzen diren informazioak eta eskaintzako alderdiak konfidentzialak
direla, merkataritzako sekretuekin edo sekretu teknikoekin lotura izateagatik. Hauek dira, beraz, agiri
konfidentzialak:

Adierazten du, baita ere, agiri horiek konfidentzialak direla ondoko arrazoi hauengatik:

.....en,ko(a)ren(e)(a)n

Sinatua:
NAN:



AGIRIKO VII. ERANSKINA

BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] bankuak, (aurrerantzean, “Bankua”) eta haren izenean eta ordezkartzan [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, “Sozietatea”), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], **Energiaren Euskal Erakundearen** aurrean (aurrerantzean, “Onuraduna”), I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, “Bermatutako zenbatekoa”), [kontratuaren izena idatzi] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berriaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arrazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontaktzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arrazoiak hauengatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berriaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin, 200[](e)ko []aren ... (e)an.

[Lekua eta eguna]

[Erakundearen izen soziala]

[Ahaldun(ar)en sinadura]



AGIRIKO VIII. ERANSKINA BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA

Lehiaketa honi dagozkion baldintza tekniko berezien agiria eta planoak beste fitxategi batean daude, EEEn kontratatzailearen profilean argitaratua, “bimep azpiestazioaren baldintza tekniko berezien agiria” izenpean.



AGIRIKO IX. ERANSKINA

ENPRESA LIZITATZAILEAREN OINARRIZKO DATUAK

Enpresa lizitatzaillearen izena	
IFK / IFZ	
Jarduera nagusia	
Helbide soziala	Zentrala:
	Bulegoak EAEn:
Harremanetarako	Harremanetarako pertsona:
	Helbidea:
	Tel.:
	Faxa:
	e-mail:
Langile-kopurua	Guztira:
	EAEn:
Negozio bolumena	Guztira:
	EAEn:
Akziodunen edo enpresa taldearen izena	
Kudeaketa sistemetan ziurtapena (ISO, UNE edo baliokideak)	